

bg

Zenbait jarduera udan egiteko

DBH



AURKIBIDEA

Sarrera

Matematika

1.-10. or.

Hizkuntzak

11.-40. or.

Zientziak

41.-58. or.

Geografia eta historia

59.-68. or.

Heziketa fisikoa

69.-80. or.

Musika

81.-86. or.

Teknologia

87.-96. or.

Eranskinak

97.-106. or.

Sarrera

COVID-19k eragindako pandemiaren ondorioz bizi garen testuinguruan, bai irakasleek, bai ikasleek ahalegin handia egin dute ikasturteko hirugarren hiruhilekoan irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesuei eusteko. Orain, uda dator, erlaxatzeko eta atseden hartzeko garaia, familiaz eta lagunez, naturaz, kirolez... gozatzeko tartea.

Hala ere, ikastetxeetan bizi izan diren askotariko egoerak direla eta, udak aukera eman dezake, zenbait kasutan, hainbat jarduera proposatzeko arlo edo ikasgaien ikaskuntza indartu, mantendu zein sakontze aldera.

Ildo horretan, aurkezten dugun dokumentuaren helburu nagusia da ideiak eta jarduerak iradokitzea ikasleei laguntzeko, beharrezkotzat jotzen den kasuetan, Hezkuntza Sailburuordetzak 2019-2020 ikasturteko azken hiruhilekorako jarraibideetan aurkeztutako Hezkuntza Planean adierazi bezala.

Proposatzen diren jarduerak diziplina-edukiei hertsiki lotutako curriculum-garapenetik harago doaz, eta ikasleen garapen globala bilatzen dute, ikaskuntza autonomia eta motibazioa bultzatuz. Bestalde, ez da ahaztu behar udarako direla; beraz, jolasa eta aire zabaleko jarduerak presente daude.

Hala, dokumentu honetan biltzen diren jarduerak askotarikoak dira, ikasleen sormena eta jakin-mina bultzatzea dute helburu, eta ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko aukera ematen dute. Horrenbestez, lehenetsi diren jarduerak integratuak dira, testuinguratuta daude eta hainbat gaitasun garatzen dituzte: ikasleek erronkak edo zereginak burutu eta ikerketa txikiak, diseinuak...e.a. egingo dituzte. Irakasleak, ikasleei buruz duen ezagutzatik abiatuta, erraz egokitu ahal izango ditu mantentze-, indartze- edo sakontze-jarduera gisa. Adibide moduan, ikasmila guztietan, zenbait egokitzapenen ereduak ematen dira "proposamen garatuak" atalean.

Dokumentua Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzarako egin da. Bigarren Hezkuntzan, ikasgaien araberako antolaketari eusten dio eta ikasmilaz ikasmilako jarduera-proposamenak jasotzen ditu. Bukaeran, eranskinen atalean, ahozko euskararen erabilerari lotutako gomendioak eta baliabide-zerrenda ematen dira, bai eta ikasleen autorregulazioa sustatzekoak ere.

Gomendagarria da irakasle-taldeek ekimen hau bere testuinguruan kokatzea, hau da, ikasleei laguntzea, hurrengo ikasturtea ahalik eta baldintza onenetan hasi daitezen. Ildo horretan, beharrezkoa da irakasleen arteko koordinazioa, jardueren beharra duten ikasleei lan-karga handiegia ez emateko, jarduera-motak orekatzeko eta ikasleek egingo duten lana jasotzeko sistemaren bat ezartzeko.

Azkenik esan, dokumentu hau irakasleei zuzenduta badago ere, kontuan hartu behar dela zer garrantzitsua den familiari ondo azaltzea ekimen honen helburua.

Matematika


*Aplikazio digitalei dagokionez, irakasleak bere ikastetxean indarrean dagoen plataformaren arabera (GSuite, Office 365 edo Moodle) egingo du aukeraketa.

MATEMATIKA- DBH 1

- 1. Udan bainatzen zaren errekaen emaria** kalkulatu. Zenbat ur-litro emango ditu erreka itsasoraino hilabetean?
- 2. Zure udako bidaiaren kostua** kalkula erregaiaren litro baten kostua, 100 km ko erretzen den erregaia eta km kopurua.
- 3. Fruta dendan udako hilabete batean gastatutakoa kalkulatu.** Zenbat irabaziko du saltzaileak % 30-a kargatzen baldin badu fruta saltzeko prezio osatzeko?
- 4. Hurrengoaren emaitza zer da 100 baino handiagoa edo txikiagoa? Zergatik?** $4+3\cdot 4(1+7)$
- 5. Ze balio izan behar du b letrak** hurrengo lau zenbakiak hiruren multiploak izateko?
2b46 ; 301b ; b314 ; 7b0
- 6. Karta dorreak egin:**
 - <https://youtu.be/qFrhsInZzdY>
 - <https://es.wikihow.com/hacer-un-castillo-de-naipes>
- 7. Taberna ireki ala ez** erabaki behar duzu. Zure gastuak hilean hauek dira: Pertsonala 4000€, alokairua 1000€, zergak 350€. Konturatu zara gehienez aurretik saltzen zenuenaren erdia salduko duzula. Aurretik edarietan zenuen gastua 6000€koa zen eta irabazia %125. Merezi dizu taberna zabaltzeak?
- 8. Zu izango zara erronka matematikoa asmatzen duzuna.** Asmatu, disfrutatu asmatzen, baina beti ere zuk zeuk egiteko gai izango zaren erronka izan behar da.
- 9. Parkearen diseinua:**
<https://drive.google.com/file/d/0B82zOtAwgRzxbV9JZk81QnVjTFk/view>
- 10. Zure logelaren neurriak:** Kalkulatu zure gelako zoruaren perimetroa eta azalera, bi unitate desberdinetan.


PROPOSAMEN GARATUAK- DBH 1

1.- "COVID-19 EGOERAN TABERNA IREKI ALA EZ?"

<p>Taberna ireki ala ez erabaki behar duzu. Zure gastuak hilean hauek dira: Pertsonala 4000€, alokairua 1000€, zergak 350€. Konturatu zara gehienez aurretik saltzen zenuenaren erdia salduko duzula. Aurretik edarietan zenuen gastua 6000€koa zen eta irabazia %125. Merezizuzu taberna zabaltzeak?</p>	
---	---

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
<p>Kalkulatu lehenbizi egoera normalean zenbat fakturatzeko zenuen, ondoren horren erdia kalkulatu eta gastuen kenketa egin, zenbat geratzen da?</p>	<p>Atera duzun ondorioa baloratu hainbat ikuspegietatik; irabaziak, langileak eta langabezia.</p>	<p>Atera duzun ondorioa baloratu hainbat ikuspegietatik; bezeroei zerbitzua eskaintzea, herria bizirik mantentzea, bezeroak galtzeko arriskua ...</p>

2.- "ERRONKA ASMATZEN"

<p>Zu izango zara erronka matematikoa asmatzen duzuna. Asmatu, disfrutatu asmatzen, baina beti ere zuk zeuk egiteko gai izango zaren erronka izan behar da. Ondoren aukeratu zure gelako taldetxo bat, nahikoa da 2-3 lagun eta bidali whatsapppean erronka. Jaso erantzunak eta apuntatu guztia; zuk planteatutakoa eta besteek erantzundakoa. Ondoren eman zure iritzia jasotako erantzunen inguruan.</p>	
---	---


INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
<p>Ondo zehaztu, jarri ondo datuak eta planteatu galderak.</p>	<p>Zein izan da izan duzun zailtasun handiena?</p>	<p>Erronka zaila jartzen saiatu zara? Zergatik? Aukeratu dituzun lagunak zergatik aukeratu dituzu? Gertatu da espero zenuena?</p>

MATEMATIKA- DBH 2

- 1. Bilduma sortzen.** Herriko lorategira edo mendira irteera aprobetxatu lore mota desberdinen lorezil, filamentu, petaloen ... argazkiak atera, irudi geometrikoak irudikatu, azalera desberdinak kalkulatu eta bilduma sortu.
- 2. Manifestazioa egin da herrian.** Beti bezala, komunikabideetan eman diren datuak desberdinak izan dira. Nola jakin dezaket zeinek dioen egia? Benetan kontabilizatu daiteke biltzen diren pertsonen kopurua? Nola? Zein datu ezagutu behar dira. Egungo segurtasun neurriekin zenbat pertsona sar daitezke herriko plazan?
- 3. Udaletxeak lursail bat hutsik du.** Parke bat diseinatzea eta alkateari eskutitz bat bidaltzea proposatzen dizugu. Kontuan hartu beharko dira lursailaren dimentsioak horretarako udaletxeko hirigintza-saileko arduradunak eman dezake informazioa baita diseinuan derrigorrezkoak diren elementuak sartzea ere.
- 4. Oinarria laukizuzena eta dimentsioak 5, 6 eta 8 cm-koak dituen kutxa daukagu. Zein da barruan sar dezakezun zotzik handiena?** Eta zein posizioetan?
- 5. Geometria nonahi.** Atera kalera eta zure etxe ingurua behatu; bertan aurkitu forma geometriko desberdinak dituzten objektuak, eraikuntzak... argazkiak atera eta marrazkiak egin. Neurri errealak badituzu kalkulatu azalera eta bolumenak.
- 6. Sukaldari bihurtu zara.** Eguneko menua diseinatu dieta orekatu eta osasungarria kontuan hartuta, aurrekontua kalkulatu, sukaldatuko duzun pertsonentzako neurri eta proportzioak kontuan izan...
- 7. *Kirolaria zara?** Egunero egiten duzu kirola? Taldean, bakarrik? Oporretan joan taula batean kirola egiten duzuenon bihotz-erritmo, arnas-erritmo eta tenperatura jasotzen. Zer ondorio atera ditzakezu?*
- 8. Matematikak gorroto dituzu?** Hona hemen matematikaren mundura gerturatuko zaituen El Diablo de los Números Hans Magnus Enzensberger.
- 9. *Erronka matematikoa.** Zu izango zara orain, erronka matematikoa asmatuko duzuna. Zu zeuk egiteko gai izango zaren erronka izango da. Datuak ondo zehaztu, ondo planteatu galderak... eta lagunekin partekatu.
- 10. Matematikekin jolastu nahi?** Goazen matematikaren alderdi politenaz goatzera. Ea proposatzen zaizkizun [jgarkizun eta erronka](#) hauek konpontzeko eta ebazteko gai zaren.

PROPOSAMEN GARATUAK - DBH 2


1.- *KIROLARIA ZARA?

<p>Uda honetan zehar, askotariko gauzak egiteko aukera izango dugu, haien artean seguru, kirola egitea</p> <p>Betidanik entzun dugu oso egokia eta ona dela osasunerako ariketa fisikoa egitea. Izan ere, medikuek eta osasunean adituak diren espezialistek egunero gomendatzen dute.</p>	
--	---

Baten batekin ariketa fisikoa egiten ari zara (baloiarekin, saltoka...). Ariketa fisikoa denbora tartetean egin: 15 segundotan, 30 segundotan eta 60 segundotan. Denbora kontrolatu kronometroa erabiliz. Hiru neurketa egingo dituzu: **Bihotz-erritmoa**, pultsua eskumuturrean neurtuz; **Arnas erritmoa**, minutuko zenbat aldiz arnasa hartzen duzuen eta **Temperatura**, termometroa partekatzen baduzue, erabilerara bakoitzaren ondoren, alkohol pixka batez garbitu beharko duzue. Datuak taulan jaso eta ondorioak atera.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Datuak taulan jaso eta ondorioak atera dira.	Zer harreman dago kirolan emandako denbora eta bihotz-erritmoaren artean? Eta denbora eta arnas-erritmoaren artean?	Datu berdintsuak atera al dira partehartzaileen artean? Zergatik izan daiteke? (adina, egoera fisikoa, ohiturak...).

2.- *ERRONKA MATEMATIKOA ASMATU"

<p>Matematika formulak eta ekuazioak baino askoz gehiago da. Zientzia honek mendeak daramatza gizaki ospetsuenak, eta ez hain ospetsuak kezkatzea lortu duten buruko erronkak eta paradoxak sortzen.</p>	
--	---

Erronka matematikoa asmatu behar duzu. Ondo zehaztu erronka, datuak ondo jarri eta ondo planteatu galderak.

Ondoren, aukeratu zure gelako taldetxo bat, nahikoa da 2-3 lagun eta bidali whatsapppean erronka. Jaso erantzunak eta apuntatu guztia; zuk planteatutakoa eta besteek erantzundakoa. Ondoren eman zure iritzia jasotako erantzunen inguruan.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Ondo zehaztu erronka , jarri ondo datuak eta planteatu galderak.	Zein izan da izan duzun zailtasun handiena?	Erronka zaila jartzen saiatu zara? Zergatik? Aukeratu dituzun lagunak zergatik aukeratu dituzu? Gertatu da espero zenuena?

MATEMATIKA - DBH 3

- 1. Zenbat denbora eman duzu?** Oporretako hamabostaldi baten eginikoa idatzi, gutxi gora beherako dedikazio denbora apuntatuz. Zeregin bakoitzari eskainitako denborak/proporzioak grafika baten islatu.
- 2. Sukaldatzen.** Menuren bat asmatu. Errezeta. Osagarriak, neurriak, balore energetikoak...
- 3. Zure herriko gazte jai-batzordekoa zara.** Erabaki behar duzu zenbat pertsona sar daitezkeen plazan.
- 4. Nola egingo zenuke?** Word programak badu orri bakoitzean zenbat hitz eta karakter dauden neurtzen duen tresna. Aurkitu tresna hori eta probak egin. Orain, pentsatu tresna matxuratu dela. Hala ere, zuk, gutxi gora behera irakurtzen ari zaren liburu osoan zenbat hitz dituen neurtu nahi duzu. Zelan egingo zenuke?
- 5. *Ilunabarraren bilakaera...** Ilunabarrari egunero argazki bat atera eta guztiekin PPT eder bat osatzen joan. Ahal baduzu saiatu musika eta animazioa jartzen.
- 6. Gure aitona-amonen mundura hurbilduko gara** eta horretarako, gure inguruan gaur arte erabili izan diren eta desagertzear dauden neurriak, tresnak, irudiak... aurkitzea proposatzen dizuegu.
- 7. Izarrarteko Bidaia.** Hegoalderantz begiratzuz gero, neguko gauetan, besteak beste, Geminis konstelazioa ikusten da. Geminiseko izar disdiratsuenak Castor eta Polux (edo Pollux) deitzen dira. Horien arteko distantzia oso handia izan arren, hemendik bata bestearen ondoan ikusten dira, gure ikuspuntutik ia norabide berean daudelako, gurekin lerrokatuta daudelako. Goazen bidaiatzera izarren artean.
- 8. Washapeko mezu polit bat** bidali diezu zure 5 pertsonari. Hauetako bakoitzak beste bosti bidaltzeko konpromisoa du. Azken hauek ere konpromiso berbera dute. Eta horrela jarraitzen du segi eta segi. Bakoitzak bere konpromisoa betetzen du txintxo-txintxo 30 minutu pasa baino lehen. Bidalketak, beti ere, Euskal Herri barruan egin behar dira. Guztira 4.500.000 biztanle.
- 9. Eguna zertan ematen duzu?** Jarduera desberdinak zehaztu. Bakoitzean zenbat ordu egunean. Egin grafikoa. Zertaz ohartu zara? Zerbait aldatu nahi zenuke? Zer? Saiatu gauzatzen. Jarraipen sistema ezarri eta berriro konprobatu aldi batera. Berriro grafikoa egin eta helburuaren betetze maila aztertu.
- 10. Musika partitura batek 200 borobil, 150 beltz, 600 kortxea eta 300 kortxeaerdi dauzka. Oso motela da zure gusturako, lau aldiz azkarragoa nahi zenuke. Zer egingo zenuke?**

PROPOSAMEN GARATUAK-DBH 3

1. ZURE HERRIKO GAZTE JAI-BATZORDEKOA ZARA

Zure herriko gazte jai-batzordekoa zara. Aurten festak ere bereziak izango dira. Herriko plaza handia da. Zuk jakingo duzu zenbaterainokoa. Erabaki da Zure Herriko pertsonaiaren jaitsiera bai egitea baina plazan ezingo da nahi beste jende sartu. Pertsonen artean bi metroko tartea egon behar da. Horregatik muga jarri behar da.



Erabaki behar duzu zenbat pertsona sar daitezkeen plazan. Beste toki batera aldatzen ba da festaren gunea, zenbat sartuko ziren? Zein izan daiteke edukiera handiena duena?

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Garbi azaldu eginiko kalkuluak eta eragiketak emaitza lortzeko. Eta hauek formatu matematikoan eman.	Ondoriozta dezakegu formula bat edozein egoeratan erabil dezakeguna? Zein?	Jende kopuruaz aparte, ba da beste punturen bat kontutan izan behar duguna jai hau antolatzerakoan? Zein? Zergatik?

2. ILUNABARRAREN BILAKAERA...

Ilunabarrari egunero argazki bat atera eta guztiakin PPT eder bat osatzen joan. Ahal baduzu saiatu musika eta animazioa jartzen. Argazki bakoitzari eguna eta ordua ezarri. Gaur egun argazki kamera/mugikor batzuk badute data idazteko aukera, saiatu aurkitzen modu hau. Ez baduzu aukera hori zeuk apuntatu.




- Zer gertatzen ari da eguzkiarekin? Zergatik? Nola ulertu daiteke hori? Eguneko zenbat lehenago edo beranduago sartzen da eguzkia? Zenbat hori %tan nola adieraziko zenuke?
- Gutxienez 15 egunetan jaso behar dituzu argazkiak eta datuak. Ilunabarraren aurrean jartzen zarenean saiatu etxekoren baten laguntasuna lortzen. Une oso ederra izan daiteke, gozatu familiakoekin edo lagunekin. Laguntza gehigarria: Aztertu Interneten zein orduetan sartzen den eguzkia, alderatu gertatzen ari denarekin
- Ondorioetan erantsi: Zure esperientzian sentitutakoa jaso, adierazi nahi duzun moduan (olerkia...), zure emozioa zein izan da?

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Lana burutzeko, eta behar diren datuen jasoketa egokia.	Jasotako datuekin ondoriozta dezakegun fenomenoak azaldu modu egokian eta matematikoan.	Toki ezberdinetan eta distantzia ezberdinetara hartutako datuak berdinak al dira? Zergatik?

MATEMATIKA - DBH 4

- Uraren kutsadura:** Herri txiki batean, urdaileko gaitzak agertu dira udako egun bero batean. Herria hornitzen duen deposituko ura aztertuta, gaitza bakterio batzuek sortu dutela ikusi dute. Osasun agintariek bidali dituzten mediku eta biologoek txosten bat egin behar dute, zer egin duten eta zer ondorio atera dituzten zehaztuz. Zenbat antibakterio sartu beharko diren deposituko uretan kalkulatzeko lagundu behar diezu.
- Teilatupekoa egiten:** zure auzokoek, planta karratua duen beren etxean, teilatupekoa egin nahi dute, irudian ikusten duzun horren modukoa. DBHko 4. mailan zabalduzake, eta laguntza eskatu dizute kalkulatu egiteko.
- Eskaintzak supermerkatuan:** zure auzoko supermerkatuak janari-marka bat bultzatu nahi du. Supermerkatuko arduradunek marka hori bultzatzeko pentsatu dituzten eskaintzak azaldu dizkizute, eta iritzia eskatu dizute.
- Emakumeak matematika egiten:** historian zehar hainbat emakume matematikari ezagutzen dira beraien ekarpen matematikoengatik; Euskal Herrian ere baditugu emakumeak matematika ikertzen. Bi emakumeren aurkezpena prestatu behar duzu zure gelakideen aurrean aurkezteko; emakume bat, emandako zerrendatik aukeratu eta bestea, Euskal Herrikoa izan behar du; horretarako webgune baten helbidea duzu bilatzeko. Aipatuko duzun informazioaren artean: bizitzako datuak, matematikan izan duen garrantzia, bestelako bitxikeriak...
- Teknologia berrien eraginak:** Lurra planetaren azalera osotara 510 milioi Km²koa da. Telefonía etxe berri batek lur osoan estaldura ona lortu nahi du 5G teknologia ezartzeko. Sateliteak behar ditu lehenik eta ondoren lurreko errepikatzaile lana egiten duten telefonía antenak. Sateliteak duen estaldura jakinda eta zenbat antena jarri behar diren, konturatuko zara zenbat millioi euro kostatuko duen. Abantailak, desabantailak eta zure iritzi kritika eman beharko duzu gaiaren inguruan. .
- Problemen ebazpena:** 3 problema ebaztea proposatzen zaizkizu: aukeratu bi
 - Botilen banaketa.** Hiru lagunen artean litro bateko 21 botila banatu behar dira. 7 botila likidoz goraino daude beteta, 7 erdirarte bakarrik eta 7 hutsik. Lagun bakoitzari likido kantitate eta botila kopuru bera eman behar zaio. Nola egin behar da banaketa? (Oharra: likidoa ezin da ontziz aldatu)
 - Tomate Magikoak.** Otarre batean tomateak ditugu eta minuturo tomate kopurua bikoiztu egiten da. Ordu bat igarotakoan otarrea guztiz beteta dago. Zenbat denbora beharko da erdiraino betetzeko?
 - Azoka.** Azoka batean honelako trukeak egiten dituzte:
 - Gazta baten truke, angurri (sandia) bat eta meloi bat.
 - Hiru ogiren truke, gazta bat.
 - Hiru ogiren truke, meloi bi



Zenbat angurri emango dizkizute gazta baten truke?

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 4

1.- ESKAINTZA SUPERMERKATUAN

Zure auzoko supermerkatuak janari-marka bat bultzatu nahi du. Supermerkatuko arduradunek marka hori bultzatzeko pentsatu dituzten eskaintzak azaldu dizkizute, eta iritzia eskatu dizuete.



1. Jogurt-pak 3,6 €-an. 3 unitate gehiago eramanda, guztira 4,5 €. Baina jogurt bakoitzak hasieran baino 0,10 € balio du. Pak bakoitzean zenbat jogurt jarri behar dituzten jakin nahi dute, bai eta jogurt bakoitza hasieran zenbat kostatu behar den eta zenbat kostatuko den bezeroren batek eskaintza onartuz gero.
2. Gurin-terrina bat eta marmelada-ontzi bat eramanda, ordaindu 4 €. 2 terrina eta 3 ontzi eramanda, ordaindu 7,6 € eta aurreztu % 20 terrina eta ontzi bakoitzean. Lehen bezala, orain ere gurin-terrina eta marmelada bakoitza hasieran zenbat kostatuko den jakin nahi dute, bai eta zenbat kostatuko diren bezero batek eskaintza onartzen badu.
3. Bi brick laranja-zuku, 1 brick sagar-zuku eta 1 brick muxika-zuku eraman, eta 6 € ordaindu. 2 brick Laranja-zuku eta 2 brick sagar-zuku eraman eta 5 € ordaindu. 3 brick laranja-zuku eta 2 brick muxika-zuku eraman eta 8 € ordaindu. Zenbatean jarrikoar dute brick bakoitza?

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Emandako datuak ulertu eta era egokian jarri, hizkera algebraikoa erabiliz.	Planteatzen den eskaintzari ekuazio aljebraiko egokia egokitu eta produktu bakoitzaren prezioa zenbat kostatu behar den kalkulatu.	Beste eskaintza berri bat asmatzea.

2.- TXIRINDULARITZA ETA MALDAK. Ikurren kontua

Ikurren kontua: Askotan errepideetatik gindoazela %10 ikurra hau ikusi dugu baina, ba al dakigu zer esan nahi duen? Irudian ikusten den bezala, ikurraren barruan ehuneko bat agertzen da aldapa baten gainean. Kasu honetan, aldapa (malda) gora doala badakigu.



- **Irakurri aurretik:** 1. testuan agertzen den lehenengo irudia ikusi eta gero, noizbait ikusi al duzu errepideetan horrelako seinalerik? Zer uste duzu esan nahi dutela? 2. Zergatik uste duzu beharrezkoa dela errepideetan maldari buruz ohartaraztea? 3. Ezagutzen al duzu txirindularitzan agertzen diren altimetria grafikoak? Ba al dakizu zertarako balio duten?
- **Irakurri bitartean:** 4. %100-eko maldak zer esan nahi du? Zenbateko angeluak osatuko luke? 5. Posible litzateke 90 gradutako malda kalkulatzeko? Zergatik? 6. Zein izango da Oiz mendiko batez-besteko malda? Zein bi modu ezberdin erabil ditzakegu kalkulatzeko? 7. Zure ustez, zein izango da Oiz-eko tramorik gogorrena? Zergatik?
- **Irakurri eta gero** 8. Angliru izeneko portua (txirindularitzan gogorrenetarikoa bat), Asturiasen kokatua, 9. itsas-mailarekiko 305 metrotara hasten da. 12,6 km-ko luzera du eta %10,04-eko batez-besteko malda. Itsas-mailarekiko zenbateko altuerara egongo gara bukatutakoan?

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Irakurri aurretik atalean proposatutako galderak erantzuteko ulertzen ez diren hitzak azpimarratzea eta kontsultatzea.	Malda eta altimetria kontzeptuak ulertzea zertarako balio duten jakitea; proposatzen diren kalkuluak erraz egitea.	Irakurri ondoren proposatutakoa egitea zailtasunik gabe.

Euskara eta Literatura

Lengua Castellana y Literatura

English

*Aplikazio digitalei dagokionez, irakasleak bere ikastetxean indarrean dagoen plataformaren arabera (GSuite, Office 365 edo Moodle) egingo du aukeraketa.

EUSKARA ETA LITERATURA – DBH 1

Udan, zer?

1. **Irakurraldiak denontzat.** Zure balkoia komunitateko protagonista bihurtu, eta egin boz gorako irakurraldiak auzoko guztientzat. Eta oso lotsatia bazara, familian proposatu irakurraldiak: gurasoekin, anai-arrebekin auzokoarekin...
2. **Hauek dira gure gomendioak.** Zergatik ez dugu gure lagun taldean gustura irakurri dugun zerbait gomendatzen? Hemen dituzue proposamen batzuk:


Liburu zerrendak (deskargatzekoak: [Booktegi](#), [Susa literatura...](#)) eta aldizkariak ([Karramarro](#), [Gaztezulo...](#)).
3. ***Uda honetan gertatua...**Uda honetan zehar hainbat egoera bizi izango dituzu. Horietatik gehien markatu zaituztenak eguneroko batean idatzi: zure lagun min batekin izandako haserrealdia, maitasun berri bat...
4. **Ikusi.** Ikus ezazu euskarazko filmeren bat ([Argia multimedia](#)).
5. **Dastatu eta azaldu.** Jan itzazu inoiz dastatu ez dituzun eta zuretzat arraroak diren jaki bi eta idatzi edo grabatu horien errezetak.
6. **Ikimilikiliklik!** Magia trukoak egin! [Hemen dituzu batzuk oso errazak](#). Aukeratu bat eta jarri ahotsa bideoari, edota entseguak egin eta lagunei erakutsi.
7. **Altxorraren bila!** Lagunekin berriro ere elkartuko zarenez, beraientzat zerbait dibertigarria prestatzea proposatzen dizut: altxorraren bila! Zure etxe inguruko edota etxe barruko zenbait leku aukeratu eta leku bakoitzerako asmakizun bat sortu papertxoetan. Ondoren paperak ezkutatu eta lagunei deitu jolasteko!
8. ***Musika entzuten duzu, ezta?** Ikasi buruz udako modako euskarazko hiru abestiren letrak.
9. **Ausartu zaitetz** behingoz eta idatziozu gutun bat zuk dakizun pertsona horri!
10. **Entzun.** Sar zaitetz ohera eta entzun ipuin edo istorioak lo geratu arte ([Booktegi](#))

Eta...jolastu etengabe, bakarrik zein lagunekin:

- Tribial edo galdera-erantzunen euskarazko jokoak: [Jakina!](#) [Egunean behin?](#)
- Hitz-saldak, gurutzegramak...[Jolasak](#) [Hitza pasa](#)

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 1

1-*MUSIKA ENTZUTEN DUZU, EZTA?


	<p>Uda honetan zehar, askotariko gauzak egiteko aukera izango dugu, haien artean seguru, musika entzutea.</p> <p>Askotan ez gara konturatzen zein garrantzitsua den musika gure bizitzan: batzuetan, lasaitzeko; beste batzuetan, triste gaudenean, alaitzeko edo maiteminduta gaudenean gure sentimenduak hobeto ulertzeko.</p>
---	--

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Entzuten dituzun abestien artean, aurkitu ahalko zenituzke bi, nahiz eta musika mota ezberdinekoak izan, gai beraren inguruan direnak? Adibidez: maitasuna, tristura, amorrua...
- Zure aukera zein izan den jakiteko, polita izango litzateke bideo batean azaltzea.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Bilatu hiztegia (paperezkoa edo digitalean) ulertzen ez dituzun 10 hitz eta hitz horien esanahia adierazi, gero bideoan azaltzeko.	Idatzi zure hitzekin paragrafo batean abesti bakoitzak esaten duena, gero bideoan azaltzeko.	Sortu beste abesti bat, letra aldatuta, eta saiatu ahalik eta sortzaileen izaten. Entzun dituzun bi abestien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak ere bideoan azaldu.

2.- *UDA HONETAN GERTATUA...

<p>Uda honetan zehar hainbat egoera biziko dituzu: zure lagun min batekin haserrealdia, maitasun berri bat...</p> <p>Egunerokoa zerbait pertsonala da, bai baita terapeutikoa ere. Idazteak lagundu egiten digu beldurrak uxatzen, egoerari neurria hartzen...</p>	
--	---

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Egunerokoa idaztea gertatu zaizun zerbait: iaz udan egin zenituen lagunekin elkartu zara, zure lagun minekin haserrealdia izan duzu, gurasoekin ordua dela eta izan duzun azken ika-mika...

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Idatzi egunerokoa gehien markatu zaituen gertakaria, eta azaldu haren alde ona eta txarra.	Idatzi egunerokoa gehien markatu zaituen gertakaria, eta adierazi zure sentimenduak.	Idatzi egunerokoa gehien markatu zaituen gertakaria. Zer ikasi duzu egoera horretatik? Aukeratu duzun gertaera positiboa bada, zer egin zenezake berriro gerta dadin? Edo zorientasun bera sentitzeko? Aldiz, gertatutakoa gustatu ez bazaizu, zer egin zenezake ez errepikatzeko? Beste modu batean jokatu z gero, konpon liteke? Jaso zure gogoetak egunerokoa.

EUSKARA ETA LITERATURA – DBH 2

Udan, zer?

1. ***Sortu zure Lapbook-a.** Eta [Lapbook](#) bat sortzen baduzu irakurritako liburuaz edo beste edozin gairi buruz? Familiak ere parte hartu ahal du, edo lagunek.
2. **Udal liburutegiak deskubritu.** Elkartu lagun edo senideekin eta joan udal liburutegiak ezagutzera eta egin bertako karnetak: denetarik dago! Liburuak, aldizkariak, bideoak...([udal liburutegi digitala](#)).
3. **Udan gertatua**....Uda honetan zehar hainbat egoera biziko dituzu. Horietatik gehien markatu zaituztenak eguneroko batean idatzi: zure lagun min batekin haserrealdia, maitasun berri bat...
4. **Abestu.** Ikasi buruz udako modako lau abestiren letrak: gaztelaniaz eta euskaraz.
5. **Ikusi.** Ikus ezazu euskarazko filmeren bat ([Argia multimedia](#))
6. **Ausartu zaitetz** behingoz eta idatziozu gutun bat zuk dakizun pertsona horri!
7. **Entzun.** Sar zaitetz ohera eta entzun ipuin edo istorioak lo geratu arte ([Booktegi](#)).
8. ***Zein izan da uda honetako pertsonaiarik sonatuena?** Pentsatu zergatik den hain erakargarria eta egin bere deskribapena audio batean.
9. **Nolako akatsak!** Antolatu lagunekin “Sare soziala: ortografia lehiaketa”. Zure lagunek egiten dituzten akatsen zerrenda egin (Kontuz! Beraiek zureak zerrendatuko dituzte eta...)
10. **Eguneko euskalduna:** egunero lagun taldeko edo familiako norbait aukeratu, eta egun osoan zehar pertsona horri euskaraz baino ez diozue hitz egingo guztiok.

Eta...jolastu etengabe, bakarrik zein lagunekin:

- **Ginkana** bat antolatu. [Hemen duzu bat](#): logika, umorea, hizkuntza... eta beste trebetasun batzuk baliatu behar dituzue. Ea nork irabazten duen!
- Tribial edo galdera-erantzunen euskarazko jokoak [Jakina!](#), [Egunean behin?](#)
- Hitzen saldak, gurutzegramak... [Jolasak](#), [Hitza pasa](#)

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 2

1.- SORTU ZURE LAPBOOKA



Istorioak kontatzeko hainbat modu daude, eta horietatik irudimena eta sormena lantzen laguntzen duenetako bat Lapbooka da. Argazki, hitz, QR kode eta abarren bidez azaltzen dira gauzak bertan. Zure liburu pertsonala sor dezakezu Covid-19 garaiko berrogeialdian bizi izandako gorabeherak kontatzeko eta betiko gogoratzeko.

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Zure bizitzako garai arraro honen laburpen bat egitea lapbookaren bitartez zure sormen eta originaltasuna landuz. Lapbooka egiteko koloretako kartulinak, papera, rotulkiak, argazkiak, kola... beharko dituzu. Hemen duzu adibide bat [lapbook](#)

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
COVID-19 garaiko zure esperientzien laburpen bat egin Lapbooka erabiliz. Sartu argazkiak, eskemak, bitxikeriak, etxealdian gehien erabili duzun tresna, familia eta lagunekin izandako harremanak...	COVID-19 garaiko zure esperientzien kontakizuna egin Lapbookaren bidez. Bertan, berrogeialdian bizi izandako esperientziak idatzi, argazkiak itsasi, norbaiti elkarrizketa bat grabatu bere esperientziaz galdetuz eta QR kode bidez txertatu...	COVID-19aren inguruko txostentxo bat egin (jatorria, sortutako kalteak, egoera berria...) eta lapbook batean bildu. Birusaren ondorioz bizi izan dugun etxealdiari buruzko bizipenak ere txertatu lapbookean, irudi, objektuen deskribapen, edota QR kode bidezko podcastekin.

2.-ZEIN DA UDA HONETAKO PERTSONAIARIK FAMATUENA?

Askotan, konturatzen ez garen arren, pertsona batzuk, egunero, behin eta berriz ikusten edo entzuten ditugu komunikabideetan. Horiei, egun, *influencer* esaten diegu, eta hainbat “gomendio” ematen dizkigute: elikaduraren inguruan, janzteko moduan, musikaren gainean...



Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Aurtengo udan ezagunenak izan diren famatuen artean, aukeratu gehien gustatzen zaizuna. Pertsona horren inguruko informazioa bildu ondoren aztertu egingo ditugu.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Aukeratu aurtengo famatuak izan diren lau pertsonaia (emakume bi eta gizonezko bi). Informazioa bildu eta ezaugarri nagusiak kontuan izanda deskribapenak idatzi eta grabatu.	Sortu “pertsonaia famatuen liburua”. Aukeratu aurtengo pertsonaiarik famatuenak eta egin beraien fitxak: deskribapenak, argazkiak, eta beraien arrakastaren zergatia azaltzen duen hausnarketa bat grabatu.	Sortu zure “bihotzeko aldizkaria”. Nahi duzun formatu aukeratu (papera, sites...). Ondoren, aurtengo pertsonaiarik famatuenak aukeratu eta egin horien deskribapenak. Jarri argazkiak. Lagun edo senideren bati laguntza eskatu, eta grabatu fikziozko elkarrizketa bat soinua bakarrik edo bideoa erabiliz (mozorrotu zaitezte!). QR kode bidez txertatu ahal duzu.

EUSKARA ETA LITERATURA – DBH 3

Udan, zer?

1. **Ikus ezazu** euskarazko filmeren bat ([Argia multimedia](#)).
2. **Ausartu zaitetz** behingoz eta idatziozu gutun bat zuk dakizun pertsona horri!
3. **Sortu irratsaio bat** lagunekin nahi duzuenaren gainean hitz egiteko ([speaker](#)).
4. **Entzun**. Sar zaitetz ohera eta entzun ipuin edo istorioak lo geratu arte ([Booktegi](#)).
5. **Joan parke batera** eta eseri bakarrik ikusten duzun aitona-amonaren batekin. Hitz egin berarekin.
6. ***Hain ezberdinak al gara?** Hurbildu zaitetz zurearengandik oso desberdina den kultura batera eta ezagut ezazu barrutik. Aztertu janariak, janzkerak, erlijioa, ohiturak... Eta hausnartu: aipatutako guztiak hain desberdinak izanda, zein alde dago zu eta kultura horretako zure adineko baten artean? Zer espero duzue bizitzaz zuk eta berak?
7. ***Garai bateko istorioak**. Aitonaren eta amonaren istorioak idazteko prest? Seguraski txikitatik aititek edo amamak gaztetan gertatu zitzaizkien istorio asko kontatu dizkizula (bere lehen musua, Francoren garaia, eskolako ohiturak, abentura txikiak...). Zer deritzozu istorio horiekin liburu bat idazteari? Kapitulu bakoitza istorio horietako bat izatea proposatzen dizut.
8. **Egon liteke krokodiloric ohe azpian?** Mariasun Landaren narrazioaren [atal labur hau](#) irakurri. [Gogoeta egin](#). Zer da krokodiloa?
9. **Zenbat hizkuntza hitz egiten dira zure herrian?** Bi, hiru... baino ez? Egizu ikerketa txiki bat, seguru hogeita hamarretik gora direla! Gehiegi? Zeuk esan. [Webgune honetako informazioa irakurri](#).
10. ***Udako bitxikeriak**. Mundu hau gero eta zoroago! Jira eta buelta dabilen mundu honetan nolako albiste harrigarriak entzun edo irakurtzen ditugun ezta? Aukeratu hiru eta egizu collage bat.

Eta...jolastu etengabe, bakarrik zein lagunekin

- Ginkana bat! Barre egiteko aukera paregabea. [Hemen duzu bat](#): logika, umorea, hizkuntza eta beste trebetasun batzuk baliatu behar dituzue. Ea nork irabazten duen!
- Tribial edo galdera-erantzunetara: [Jakina! Egunean behin?](#)
- Hitz-saldak, gurutzegramak...:
 - [Jolasak](#), [Hitza pasa](#)
 - Gurutzegramak: **1 2 3 4 5 6 7 8 9 11 12**
13 14 15 16 17 18 19 20

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 3

1.- UDAKO BITXIKERIAK

Egunkaria irakurtzean edo berriak entzutean beti agertzen da harritzen gaituen notziaren bat, gertaera bitxiren bat. Zenbaitetan sinestezinak direnak, gainera. Mundu zoro honetan errealitateak fikzioa gainditzen du askotan! Batzuk egia izango dira, beste zenbait ez; zein notziak harritu zaitu? Zer bitxikeria entzun duzu azken boladan?



Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Azken aldiaren entzun, irakurri edo ikusi duzun albiste bitxiaren collagea egitea.
- Kartulinazko horma batean jaso ditzakezu berriak, eskulanetako trebezia erakutsita, edo horma digital batean IKTeetan duzun abilezia mahai gainean jarrita.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Azken boladan entzun, irakurri edo ikusi dituzu albiste bitxiaren collagea egin, paperean edo digitalean. Bakoitza zergatik aukeratu duzun kontatu.	Azken boladan entzun, irakurri edo ikusi dituzu albiste bitxiaren collagea egin, paperean edo digitalean. Horietatik gehien gustatu zaizuna aukeratu eta haren gaineko iritzia eman. Zergatik harritu zaitu? Egia ala gezurra al da?	Azken boladan entzun, irakurri edo ikusi dituzu albiste bitxiaren collagea egin, paperean edo digitalean. Zergatik ez duzu albiste bitxi bat sortzen? Pentsatu eta prestatu berri original eta harrigarri bat, gidoia egin eta kontatu albistea kazetaria izango bazina bezala.

2.- HAIN EZBERDINAK AL GARA?



Nazio eta kultura asko daude munduan, zenbat ditugu inguruan? Zer dakigu beste herrialde batzuetako ohiturei buruz, janzkera, elikadura edota sinesmenei buruz? Gure eskolan edo ikasgelan ere, guztiok ez ditugu ohitura berdinak, batzuetan ez da hizkuntza bera hitz egiten gure etxeetan. Gure behar eta nahiei begiratzen badiegu, ordea, hain ezberdinak al gara?

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Zurearengandik oso desberdina den kultura bat aukeratu eta ezagutu. Aztertu janariak, janzkerak, erlijioa, ohiturak...eta hausnartu: aipatutako guztiak hain desberdinak izanda, zein alde dago zu eta kultura horretako zure adineko baten artean? Zer espero duzue bizitzaz zuk eta berak?

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Aukeratu duzun kulturaren gaineko informazioa bildu. Idatziz jaso zein den jai egunik garrantzitsuen, erlijioari lotutako egitekorik nagusiena, tradiziozko jaki ezagunena.	Informazioa bildu eta idatzi: zein den jaiegunik garrantzitsuen, erlijioari lotutako egitekorik nagusiena, tradiziozko jaki ezagunena. Kultura horretako zure adinekoen kezka zeintzuk izango direla uste duzu? Norbait ezagutzen baduzu galde iezaiozu	Informazioa bildu eta idatzi: jaiegunik garrantzitsuen, erlijioari lotutako egitekorik nagusiena, tradiziozko jakirik ezagunena. Kultura horretako zure adinekoen kezka zeintzuk diren bere kezka edota desira nagusienak. Zureekin alderatuta osoa bestelakoak al dira?

3.-GARAI BATEKO ISTORIOAK

Aitona-amonek zenbat ipuin, istorio eta gertaera kontatzen dizkizuite? Euren oroimenak gure historiaren parte dira, ohitura zaharren gordailu. Zergatik ez dituzu pasadizorik garrantzitsuenak liburu batean biltzen? Amona edo aitona gustura arituko dira berriketan eta euren gaztetako ipuin, pasadizo edo ohiturak bilduta ikustea familia osoari gustatuko zaio.



Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Aitona-amonei entzundako ipuin, gertaera edo istorioak liburu batean biltzea

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
<p>Aitona-amonek kontatutako istorio, gertaera edo pasadizoak liburu batean bildu: eskola garaiko kontuak, frankismoa, pasadizo barregarriren bat...</p>	<p>Aitona-amonek kontatutako istorio, gertaera edo pasadizoak liburu batean bildu: eskola garaiko kontuak, frankismoa, pasadizo barregarriren bat... Kapituluak antolatu istorioen gaiaren arabera eta esan zein den gehien gustatzen zaizuna eta zergatik.</p>	<p>Aitona-amonek kontatutako istorio, gertaera edo pasadizoak liburu batean bildu: eskola garaiko kontuak, frankismoa, pasadizo barregarriren bat... Euren garaiko ohiturak egungoekin alderatu, adibidez eskolako pasadizoren bat hartu eta egungo eskolarekin konparatu. Zergatik ez dituzu aitona-amamak elkarrizketatzen? Aukeratu gai bat, prestatu galderak, hartu kamera eta ekin. Grabaketa liburuari erantsi ahal diozu QR kode baten bidez.</p>

EUSKARA ETA LITERATURA – DBH 4

Udan, zer?


1. **Irudi txundigarriak**, bai horixe! Irudiek, askotan, mila berbak adierazi ezin dituzten esanahiak dituzte. Zer deritzezu hauei? [Irudiak](#). Hauetako zein aukeratuko zenuke? Zergatik? Aukeratu zirrargarriena, harrigarriena eta esan zer ikusten duzun hor.
2. **Nor da hiltzailea?** Agatha Christie edo Sherlock Holmes bihurtuko zara jarduera [honen bidez](#). Lehiatu kide batekin eta ea nork asmatzen duen lehenago.
3. **Beste leku batzuetan nola?** Euskal Herrian euskaraz egiten dugu, baina herri batetik bestera ezberdintasun handiak aurki ditzakegu euskara horretan (bizkaitarra, gipuzkera...). Jar zaitetz kontaktuan beste herri batzuetako lagunekin eta sinonimoen zerrenda bat egin euskalkiak konparatuz. Hitz arrotzak, esamoldeak... apuntatu.
4. ***Baietz irakurtzeko irrika piztu!** Ikusi booktrailer hauek...eta esan, zein liburu irakurriko duzu?
5. **Entzun.** Sar zaitetz ohera eta entzun ipuin edo istorioak lo geratu arte ([Booktegi](#))
6. **Ausartu zaitetz** behingoz eta idatziozu gutun bat zuk dakizun pertsona horri!
7. **Jar zaitetz harremanetan** zure adineko beste ikastetxeren bateko norbaitekin, eta elkarbanatu gutuna/emailak/mezuak. Kontatu elkarri zuen bizipenak.
8. **Esnatu zaitetz goizean goiz**, disfrutatu egunsentiaz eta idatzi zure sententzioak.
9. **Elkartu lagun edo senideekin eta joan** Udal liburutegiak ezagutzera eta egin bertako karnetak: denetarik dago! Liburuak, aldizkariak, bideoak...([udal liburutegi digitala](#)).
10. **Ikus ezazu** euskarazko filmeren bat ([Argia multimedia](#))
11. **Kendu lotsak eta antolatu karaoke jai bat** ([euskarazko abestiak](#)). Dantzatu eta gozatu! Uda horretarako da eta.

...eta jolastu etengabe, bakarrik zein lagunekin:

- Ginkana bat antolatu lagunekin, barre egiteko, elkarren kontra lehiatzeko...
[Hemen duzue bat](#) (zeuok ere sortu ahal dituzue antzeko beste asko).
- Tribial edo galdera-erantzunen jokoetan:
 - [Jakina!](#)
 - [Egunean behin?](#)
- Hitz-saldak, gurutzegramak...
 - [Jolasak](#)
 - [Hitza pasa](#)
 - Gurutzegramak: **1 2 3 4 5 6 7 8 9 11 12 13**
14 15 16 17 18 19 20 21

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 4

1.- BOOKTRAILERRA


<p>* Baietz...Irakurtzeko irrika piztu! Ikusi booktrailer hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Anaren bakardadea → Iqbalen historia → http://kalabazan.com/getxoko-ii-book-trailer-lehiaketa/ <p>Liburu horietako baten bat aukeratuko duzu?</p>	
---	---

Honako erronka honetan, zera proposatzen zaizu:

- Zure adinekoek egindako booktrailerrak ikusi eta erakargarria egin zaizun libururen bat irakurtzea.
- Liburua irakurritakoan, antzeko booktrailer bat egitea.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Ikusi booktrailer hauek eta azaldu grabazio labur batean eta zure hitzekin bertan gertatzen dena.	Zine kritikari arituko zara. Ikusitako zein booktrailerrek erakarri zaitu gehien? Zergatik? Azaldu grabazio labur batean.	Zure booktrailerra sortuko duzu. Behar izanez gero, eskatu laguntza lagun edo senideei. <ul style="list-style-type: none"> • Bideoa • Nola egin liburuen erreseina? Zer kontatu?

2.- BIDAIA LIBURUA

<ol style="list-style-type: none"> 1. Turismo-gida bat egiteko gai izango zara? 2. Uda honetan bisitatu duzun tokiren bat aukeratu (edo zure herria) eta eman horren berri. 	
---	---

Honako erronka honetan, zera proposatzen zaizu:

- Udan bisitatu dituzun lekurik erakargarrienak gogoratu eta munduari erakustea.
- Begiratu honako gida turistikoak [Gasteiz](#) eta [Londres](#) eta antzekoa sortzea.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Begiratu aurreko turismo-gidak eta sortu zurearen atalak (deskribapenak, argazkiak...).	Turismo-gidari bihurtuko zara. Egin ezazu bisitatutako lekuen gida PPT batean, <i>Genially</i> batean, orri batean... Azaldu bisitatutako lekuen ezaugarriak (eguraldia, historia...), deskribapenak, azalpenak, argazkiak jarri...	Zure bidaia liburua sortuko duzu. Bisitatutako lekuak deskribatu eta azaltzeaz gainera, bertan bizi izandako sentazioak azalduko dituzu. Hauek podcast batean grabatuko dituzu, eta QR kodearen bidez txertatuko dituzu zure bidaia liburuan. - QR kodea sortzeko

LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA - 1º ESO

1. **Lee en voz alta.** Convierte tu balcón en protagonista de la comunidad, y recita a viva voz para toda la vecindad. Si eres muy vergonzoso o vergonzosa puedes proponer la lectura en familia: con tu madre y tu padre, con tus hermanos y hermanas, con el o la vecina...
2. **Nuestras recomendaciones.** ¿Por qué no recomendamos entre nuestras amistades algún libro que hayamos leído a gusto? Aquí os dejamos algunas propuestas:

[Lista de libros \(para descargar\)](#) y revistas ([Biblioteca virtual Miguel de Cervantes](#)).


3. ***Sucedió este verano...** Durante este verano tendrás muchas vivencias. Escribe en un diario las que más te han marcado: un enfado con una amiga o un amigo íntimo, un nuevo amor...
4. **Disfruta de una buena película** ([100 películas](#)).
5. **Prueba dos platos** que no has probado nunca y que para tí son raros. Escribe o graba la receta.
6. **¡Abracadabra!** ¡Haz un truco de magia! [Aquí tienes algunos muy fáciles](#). Elige uno y ponle voz al vídeo, o haz algún ensayo y represéntalo delante de tus amistades.
7. **Busquemos el tesoro.** Como te vas a juntar con los amigos y amigas otra vez, te propongo que prepares algo divertido para la ocasión: ¡En busca del tesoro! Elige algunos rincones alrededor de tu casa o dentro de ella e inventa un acertijo para cada rincón. Después, esconde los papeles con los acertijos y llama a tus amistades para jugar.
8. ***¿Escuchas música?** Aprende de memoria la letra de tres canciones del verano: en castellano.
9. **¡Atrévete de una vez** y escríbele una carta a quién tú ya sabes!
10. Acuéstate y **escucha cuentos e historias** hasta que te duermas ([Albalearning](#))

Y...juega:

- Trivial para jugar en el ordenador, la tablet o en el móvil: [trivial online](#)
- Sopa de letras, crucigramas... [Pasatiempos Pasapalabra](#)

PROPUESTAS DESARROLLADAS - 1º ESO

1.- ESCUCHAS MÚSICA, ¿VERDAD?


<p>Durante este verano podremos hacer diversas cosas, entre ellas, seguro, escuchar música.</p> <p>A veces no nos damos cuenta de lo importante que es la música en nuestras vidas: en ocasiones, para tranquilizarnos; en otras, cuando estamos tristes, para alegrarnos o para entender mejor nuestros sentimientos al enamorarnos.</p>	
---	---

En este reto te proponemos lo siguiente:

- Entre las canciones que escuchas, ¿podrías encontrar dos, aunque sea en diferente lengua o estilo de música, que traten el mismo tema? Por ejemplo: el amor, la tristeza, la rabia... Para saber cuál es tu elección, estaría bien que lo explicaras en un video.

REFORZAR	MANTENER	PROFUNDIZAR
<p>Busca en el diccionario (en papel o digital) 10 palabras que no entiendas y apunta su definición para que luego aparezca en el video.</p>	<p>Escribe en un párrafo y con tus palabras lo que dice cada canción, para que luego aparezca en el video.</p>	<p>Crea una nueva canción, cambiando la letra, y procura ser lo más creativo o creativa posible.</p> <p>Apunta las diferencias y similitudes de las dos canciones que has elegido, y cuéntalo en el video.</p>

2.- SUCEDIÓ ESTE VERANO...

<p>Durante este verano tendrás muchas vivencias: un enfado con una amiga o un amigo íntimo, un nuevo amor...</p> <p>El diario es algo personal, sí, y también terapéutico. Escribir ayuda a ahuyentar los miedos, tomar la medida a la situación...</p>	
---	---

En este reto te proponemos lo siguiente:

- Escribe en el diario algo que te haya sucedido: el reencuentro con los amigos y amigas que hiciste el verano pasado, el enfado que has tenido con una amiga o un amigo íntimo, la última riña con tu madre y tu padre sobre la hora...

REFORZAR	MANTENER	PROFUNDIZAR
<p>Escribe en el diario el suceso que más te ha marcado y explica su lado bueno y malo.</p>	<p>Escribe en el diario el suceso que más te ha marcado y expresa tus sentimientos.</p>	<p>Escribe en el diario el suceso que más te ha marcado. ¿Qué has aprendido de esa situación?</p> <p>Si el suceso que has elegido es positivo, ¿qué podrías hacer para que se vuelva a repetir? O ¿para que vivas la misma felicidad?</p> <p>En cambio, si lo sucedido no te ha gustado, ¿qué podrías hacer para que no se repita? ¿Actuando de distinta manera se podría arreglar? Recoge tus reflexiones en el diario.</p>

LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA - 2º ESO


1. ***Tu lapbook.** Y si creas un Lapbook con el libro que has leído? La familia también puede tomar parte, incluso las amistades.
2. **De visita a las bibliotecas.** Juntate con algún/a amigo/a o pariente cercano y vete a conocer las Biblioteca municipales y a hacer los carnets: ¡Hay de todo! Libros, revistas, vídeos... ([La Biblioteca Digital Municipal](#))
3. **Sucedió este verano.** Durante este verano vas a vivir diferentes situaciones. Escribe en un diario lo que más te haya marcado: el enfado con tu amigo/a íntimo/a, un nuevo amor...
4. **Cantando...** Aprende de memoria cuatro canciones de moda en castellano.
5. **Puedes ver algunas películas** ([Contenido multimedia](#)).
6. ¡**Atrévete de una vez** y escríbele una carta a esa persona que bien sabes!
7. **Escucha...** Métete a la cama y escucha historias o cuentos hasta que te duermas ([Albalearning](#)).
8. ¡**Abracadabra!** Realiza trucos de magia. [Aquí tienes algunos muy sencillos](#). Escoge alguno y ponle voz al vídeo. También puedes ensayar y enseñar los trucos a familia y amistades.
9. **¿Cómo lo has escrito?** Organiza con tu cuadrilla “Redes sociales: Campeonato de ortografía”: Haz una lista de los errores ortográficos que cometen tus amigo/as (¡Cuidado! Ello/as también harán una lista de los tuyos).
10. **La radio estropeada.** Por la mañana, escucha noticias en la radio y después graba un podcast con algunas de esas noticias, pero añadiendo alguna “mentira”. Enviasela a familiares o amistades, y comprueba si son capaces de descubrir la falsa información.

y...juega:

- Trivial o juegos de preguntas y respuestas en castellano: [TribiaDos](#)
- Juegos de palabras, crucigramas...: [Juegos](#), [Pasapalabra](#), [Crucigrama](#)

PROPUESTAS DESARROLLADAS - 2º ESO

1.- CREA TU PROPIO LAPBOOK


<p>Hay varias formas de contar historias, y el Lapbook es una de ellas. Mediante este método trabajamos la imaginación y la creación.</p> <p>Fotos, dibujos, esquemas, códigos QR... nos ayudarán a crear nuestro propio lapbook, sobre la situación y nuestras vivencias personales en la cuarentena causada por el covid-19.</p>	
--	---

En la siguiente actividad te proponemos lo siguiente:

- Realizar una descripción sobre este momento tan raro de tu vida mediante el lapbook trabajando la originalidad y la creación. Para la realización del lapbook necesitarás cartulinas, papeles de colores, pegamento, rotuladores... o lo que necesites para lo que decidas que lleve tu lapbook. Observa cómo se hace un [lapbook](#).

REFORZAR	MANTENER	PROFUNDIZAR
<p>Realiza un resumen sobre tus vivencias en época del Covid-19 utilizando un lapbook. Inserta imágenes, esquemas, descripciones sobre tus emociones, objetos más utilizados durante la cuarentena....</p>	<p>Realiza el relato de tus vivencias en esta época tan rara del Covid-19 mediante un Lapbook. Puedes escribir las experiencias vividas durante la cuarentena, pegar fotos, grabar a alguien una entrevista en la que cuente sus vivencias e insertarlo mediante un código QR...</p>	<p>Realiza un informe sobre el Covid-19 (de dónde viene, los daños causados, la nueva situación...) y explícalo en un Lapbook. Inserta también, las vivencias personales en la cuarentena, las tuyas propias, o las de alguna amistad o familiar. Para ello, puedes grabar una entrevista e insertarlo mediante un código QR.</p>

2.- ¿QUIÉN ES EL PERSONAJE DEL AÑO?

<p>A menudo, algunas personas aparecen continuamente en los medios de comunicación y en las redes sociales por varios motivos. A esas personas las llamamos <i>influencer</i>. Se dedican a darnos “consejos” sobre alimentación, moda, viajes, o simplemente, nos hablan sobre su vida personal. Hablemos sobre ellas.</p>	
---	---

En la siguiente actividad, te proponemos lo siguiente:

- Elige entre los personajes más sonados de este año los que más te gusten o te atraigan. Recaba información sobre estos personajes y analicémoslos!

REFORZAR	MANTENER	PROFUNDIZAR
<p>Escoge 4 personajes (2 mujeres y dos hombres) que hayan destacado este año, recaba información y observa sus principales características para escribir sus descripciones. Añade fotos.</p>	<p>Crea “el libro de las celebrities”. Escoge los personajes más famosos de este año y realiza sus fichas: descripciones, fotos, y sobre todo, explica la razón de su éxito.</p>	<p>Crea tu propia revista del corazón. Elige el formato de tu revista: un blog, site, PPT, papel... Después decide los personajes de los que hablarás y realiza sus descripciones. Cuenta algún suceso sobre estos y pon fotos. Pide ayuda a algún familiar o amigo/a y graba una entrevista ficticia, solo de sonido o en vídeo (disfrázate de periodista y personaje, ¡será más divertido!) Puedes añadirlo a tu revista mediante un código QR.</p>

LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA - 3º ESO

1. **Disfruta de una buena película** ([100 películas](#)).
2. **¡Atrévete de una vez** y escríbele una carta a esa persona que tú sabes!
3. **Crea un programa de radio** con tus amistades, para hablar de lo que os dé la gana ([speaker](#))
4. **Escucha...** Acuéstate y escucha cuentos e historias hasta que te duermas ([Albalearning](#))
5. **Ve al parque** y siéntate junto a alguna persona que veas sola. Habla con ella.
6. ***Las rarezas del verano: un collage.** ¡Este mundo cada vez está más loco! ¿Cuál ha sido la noticia más curiosa que has leído en verano? En este mundo loco, las rarezas salen rodando. Haz un collage y describe las noticias elegidas.
7. ***Somos tan diferentes?** Acércate a una cultura distinta a la tuya y conócela a fondo. Descubre las comidas, la forma de vestir, la religión, las costumbres... Y reflexiona: siendo todo lo mencionado tan distinto, ¿qué diferencia hay entre tú y alguien de tu edad de esa cultura? ¿Qué esperáis de la vida tú y esa persona?
4.-Mendelius karta jokoa. Joko dibertigarri honen bidez Mendelen teoria eta buruketak errepetatuko dituzu. Genotipo eta fenotipo desberdinen nahasketak egingo dituzu eta hurrengo belaunaldiaren ezaugarriak ikusi eta horien inguruan hausnartzeko aukera izango duzu. [Kartak deskargatu](#) beharko dituzu lehenik, [jokoaren argibideak](#) irakurri eta [oinarri teorikoa](#) ere errepetatu ahalko duzu (gaztelaniaz).

5.-Darwin bidaia. [Webgune honetan](#) Darwinen teoriaren inguruko jarduerak eta azalpenak aurkituko dituzu. 3 ataletan banatuta dago: teoriaren hastapenak, teoriaren garapena eta teoriaren azalpena. Hiru atal hauetan film labur bat eta jarduera bat planteatzen dira.

6.-Lurreko historiaren TimeLine-a. Jarduera honen bidez Lurreko historia urte batekin (365 egun) alderatuko duzu. 4.600 milioi urtetako [gertaera garrantzitsuenak](#), urte baten barruan dagokien egun baliokidean kokatu beharko dituzu, matematikak erabilia horretarako. Hau egin eta gero, [timeline](#) bat egingo duzu. [Informazio gehiago](#).

7.-Islandia eta geotermia. Ikerketa dokumental labur bat egingo duzu kasu honetan. Geotermia Lur barruko beroa aprobetxatuz lortzen den energia berriztagarria da, oso garrantzitsua dena Islandia bezalako kasuan. Baina, zergatik da berezia Islandia zentzu honetan? Irakurri [geotermiaren inguruko artikulu](#) hau eta bilatzen duzun informazio gehiagorekin osatu ondorengo [jarduera](#).

8.-Plaka tektoniken simulazioa. Kasu honetan plaka tektoniken mugimendua aztertuko dugu [simulazio](#) baten bidez. *“Plaken arteko muga konbergeteak”* pestainean klikatu gero, mugimendu mota desberdinak ikusiko dituzu. Ikusitakoarekin eta bertan agertzen diren azalpenekin, osatu [jarduera hau](#).

9.-Biodibertsitatea eta pandemia. Adu batzuen iritzi, biodibertsitatea kontrolatuz gero, birusak kontrolatzea ere errazagoa izan liteke. Beste askok, ordea, guztiz kontrakoa uste dute. Ikusi [bideo](#) hau eta irakurri [artikulu](#) hau informazio gehiago izateko. Argi dagoena da gizakiaren ekintzek inpaktu zuzen bat dutela naturarengan. Lortutako informazioarekin osatu [jarduera](#) hau.

10.-Lurzorua babesten. Gutxitan jartzen dugu arreta lurzoruan eta ez gara konturatzen babestu beharreko baliabidea dela. [Bideo](#) interesgarri honen bidez lurzorua garrantziaz jabetuko zara. Ondoren, lurzorua babesteko neurri batzuk identifikatzeko [jarduera](#) egin.

PROPOSAMEN GARATUAK- DBH 4

1.- PIRINIOTAKO GEOLOGIA

Euskal Herrian hain ezagunak diren Pirinioetako geologia ikertuko dugu kasu honetan. Horretarako, ikusi [bideoa](#) lehenbizi.

MANTENTZEA

Lehenik eta behin, plaka motak errebasatuko ditugu [simulazio](#) baten bidez. [Oinarri teorikoa](#) landu ondoren, hobeto ulertuko dugu [bideo](#) honetan azaltzen zaiguna Pirinioen sorreraren inguruan. Informazio gehiago izateko, irakurri ondorengo [artikulua](#).

Pirinioak nola sortu ziren ikusi eta gero, identifikatu zenbait gertaera garrantzitsu modu ordenatu eta argi batean. Orain, ipuin moduan kontatuko dituzu gertaera horiek, asmatutako xehetasunak gehituz eta ipuin hori [komiki](#) gisa islatuko duzu. Baina, nola egiten da komiki bat? Hemen dituzu [argibideak](#) (gaztelaniaz).

INDARTZEA. Nola jakin daiteke noiz sortu ziren Pirinioak bezalako mendilerroak? Zer dira [metodo erradiometrikoak](#)? Eta, zer [datazio absolutua](#)? Jarri erantzunak [hemen](#).

SAKONTZEA. Piriniotako geologia ezagutu ondoren, Himalaietako geologiarekin konparaketa bat egin beharko duzu. Horretarako, ikusi [bideoa](#) eta erantzun ondorengo galderak:

- Ze antzekotasun dituzte bi mendilerroak?
- Zertan desberdintzen dira?
- Nolako da egoera sismikoa bi eremu hauetan?

2.-HOMINIZAZIOA, GIZAKIAREN EBOLUZIOA

Gaian kokatzeko [irratia saio bat](#) entzungo duzu. Bertan, euskaldunok Afrikatik gatzela aipatzen da eta modu sakon batean egindako ibilbidea kontatzen da.

MANTENTZEA

Hominizazioaren inguruko [bideo](#) bat ikusiko duzu orain. Ondoren, Power point prestatu behar duzue HOMINIZAZIOA azaltzeko: hurrengo puntuak kontutan hartu beharko dituzue:

- Hominizazioaren definizioa
- Zergatik hasi zen?
- Primate eta hominidoaren definizioak eta desberdintasunak haien artean
- Espezie bakoitza diapositiba batean: zein kontinentetan bizi zen, buruhezurra, altuera, ezaugarri esanguratsuenak eta argazki bat

INDARTZEA

Homo sapiens espeziearen hedadura ikusiko dugu oraingo honetan. [Simulazio](#) honen bidez, pausoz pauso ikusi ahalko duzu espezie honek egindako ibilbidea. Zure hitzekin osatu testu bat ibilbidearen xehetasunak kontatuz.

SAKONTZEA. Hominizazio prozesuan gehiago sakontzeko, osatu [taula](#) hau prozesu horretan agertu ziren espezieen inguruan.

FISIKA ETA KIMIKA – DBH 4

- 1. Norberaren erreakzio-denbora.** Denok azkar erreakzionatzen dugu?. Neurtu zure erreakzio-denbora [prozedura horri](#) jarraituz
- 2. Ibilaldi bat bizikletaz.** Badu erlaziorik bizikletan ibiltzeak Fisikarekin? Ondo asfaltatutako errepide zuzen batean, pedalei eragiteari utzi diozu halako batean. Zer gertatuko da lehen segundoetan? Ondo asfaltatutako errepidean jarraitzen duzu eta semaforoa ikustean, galgatu egin duzu. Zer eragin diozu bizikletari? Zer erabili duzu gurpilen higidura gelditzeko? Ondo asfaltatutako errepide zuzen batean zoaz, baina lokatzez eta harri txikiz egindako bidea dago jarraian. Zer gertatuko da?... Irten bizikletaz paseatzera eta erantzun aurreko galderei. Adierazi egoera bakoitza fisikaren zein legerekin lotzen den. Prestatu paseoko zure txostena..
- 3. Posible al da bi skate eta soka batekin Newtonen 3. Legea frogatzea?.** Goazen ikustera! Metodo zientifikoari jarraituz baldintzak aldatu ahala lorturiko emaitzak aztertu eta ea zein ondorio ateratzen dugun!
- 4. Zer gertatuko litzateke grabitatea "bartzertzen" badugu?** Grabitaterik gabe bititza zer den jakiteko [bideoa](#) ikus dezakegu. Jarraian, irakurri [artikulu](#) hau. Orain ez uste hain interesgarria denik. Adierazi esaldi batekin zirrargarrienak iruditu zaizkizun bost ideia.
- 5. Biraka-biraka.** Uda honetan, jolas-parke batera edo barraka batzuetara joango gara. Ikusiko dugu zenbaitek mugimendu zirkularra dutela. Adierazi bi adibide. Haietako baten aurrean gelditu eta erlojua eskuan buelta bat egiteko behar duen denbora kalkulatu. Abiadura angeluarra, abiadura lineala, periodoa eta maiztasuna kalkulatu. Beste erakarpenarekin, zein da abiadura lineal handiena duena?
- 6. Energia aztertzen skate pista batean.** [Simulazioa](#) landuko dugu eta [webgune honetan](#) planteatzen diren arazoak konponduko ditugu.
- 7. Taula periodikoa eta "Matilda efektua".** [Taula periodikoa](#) eskuan, Ikertu zer elementuk zor dioten bere izena zientzialari bati. Adierazi taula batean elementuaren izena, ikurra eta zientzialariaren izena. Zenbat dira emakumeak? [Matilda efektuari](#) buruzko hausnarketa idatzi eta taula periodikoa eraikitzen lagundu zuten emakumeei buruzko aurkezpen digitala egin.
- 8. Urre beltza.** Wolframioa uste baino hurbilago aurkitu zen. Bere aurkikuntzari buruz ikertuko duzue: zergatik deitzen zitzaien "urre beltza"? Zer propietate eta erabilera ematen zaizkio wolframioari? Zergatik izan zen hain garrantzitsua Bigarren Mundu Gerran? Informazio horrekin guztiarekin infografia bat egin.
- 9. Kimika sukaldean.** Elikagai batzuk prestatuko ditugu, eta horiek prestatzean sortzen diren erreakzio kimikoak aztertu.
- 10. Euskal Herriko meatze-bihotza** Euskal Herria burdinaren lanari lotuta dago duela 2500 urtetik.. Abanto-Zierbenan dagoen [Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoren](#) webguneak edo Gipuzkoako [Burdinolen webgunea bisitatuko ditugu](#) (aurrez aurreko bisitarik ez bada). Burdina lortzeko prozesua eta Euskal Herriko burdingintzaren historia bilatu eta sortzen diren erreakzio kimikoetako batzuk idatzi. Horrekin guztiarekin aurkezpen digital bat egin.

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 4

1.-NEWTONEN 3. LEGEA FROGATUZ

MANTENTZEA

Lege fisiko bat probatuko duzu lagun baten laguntzarekin. 4 edo 5 metroko soka bat eta bi monopatin behar dituzu. Esperimentu hau egiteko, lau bat metroko distantzian gutxi gora behera pisu bera duten, bi lagun skate banatara igo behar dira eta bien artean soka bat eutsi behar dute. Behin prest egonda:

- a) Batek soka eutsi eta besteak soka astiro-astiro jasotzen du. Markatu bi monopatinak elkartzen diren puntua.
- b) Errepikatu esperientzia hasierako posizio berean jarriz, baina orain soka azkarrago jasoz. Markatu berriro bi monopatinak non elkartzen diren.
- c) Errepikatu esperientzia, oraingoan bestea delarik soka jasotzen duena.
- d) Egin berriro esperientzia, biek jasoz soka.
- e) Berriro egin esperientzia baina oraingoan oso pisu desberdineko bi pertsonekin.

Lortzen joan zareten emaitzak apuntatu eta aztertu bukatzean. Zer da gertatu dena? Koherenteak dira lorturiko emaitzak?

INDARTZEA

Erlazionatu lortutako emaitzak eta parte-hartzaileen pisuak emaitza horietan izan duen eragina. Jakin al dezakegu zer gertatuko den beste edozein pertsonak esperimentuan parte hartuz gero? Marraztu zuen ondorioak defendatu eta azaltzeko grafikoak.

SAKONTZEA

Esperimentu honetan ikusitakoa beste egoera batzuetara eraman genezake? Aipatu adibideak eta azaldu zer gertatzen den zehazki.

2.- KIMIKA SUKALDEAN

MANTENTZEA

Sukaldea etxeko laborategi ona da . Zergatik igotzen da bizkotxoa?

1. Formulatu zure hipotesia.
2. Diseinatu esperimentu bat. Bilatu Interneten edo galdetu gurasoei bizkotxoa egiteko errezeta
3. Bizkotxoa egitea eta erreaktiboak eta produktuak identifikatzea.
4. Dagokion ekuazio kimikoa hitzez idaztea.
5. Esperimentuaren txosten zientifikoa idaztea.

INDARTZEA

Erreakzio kimiko guztiek doituta egon behar dute. Ekuazio kimikoen doikuntza erreparasatuko dugu [simulazio](#) honen bidez.

SAKONTZEA

Sagar bat zuritzen dugunean, ahuakate bat, orburu bat edo patata bat mozten dugunean, ilundu egiten dira, Zergatik?

1. Formulatu zure hipotesia
2. Diseinatu esperimentua
3. Beharrezko materialaren zerrenda egitea eta esperimentua egitea.
4. Esperimentua egitean, zuen behaketak idatzi, eta adierazi zein fruta zati iluntzen den azkarren.
5. Emaitzak jakinaraztea. Idatzi zuen ondorioak

KULTURA ZIENTIFIKOA – DBH 4

1.-Prozesua Galileori. Kondena eta ukazioa. Bilaketa bat egin Interneten Galileori buruz. [Bideoa](#) ikusiko dugu eta [Bere ukazioa eta kondena](#) irakurriko. [Pixton aplikazioa baliatuta](#), komikia egingo dugu, Galileoren jarreraren eta kondenaren arrazioen berri emateko.

2.- Unibertsoaren neurria. Unibertsoko objektu astronomikoen arteko distantzia handiak landuko ditugu, simulazio baten bidez: [Scale of Universe](#). Izar-bidaia honetan, atentzioa ematen diguten izar batzuen neurri eta ezaugarriei buruzko datuak bildu eta taula batean antolatuko ditugu.

3.- Unibertsoaren hedapena: nola azalduko zenieke zure lagunei galaxiak banatzen ari direla? *Big Bang* teoriaren arabera, unibertsoa leherketa handi batean sortu zen, non materia eta energia guztia sortu zen, eta, hedatzean, espazioa eta denbora sortu ziren. Nola azal genezake galaxiak banatzen ari direla? Esperimentu erraz bati esker, "Zientzialari jakintsu" gisa geratuko zara lagunen aurrean.

4.- Kanarietako Teleskopio Handiari (GTC) bisita. Munduko teleskopio optiko handiena, Kanarias Teleskopio Handia, [El Roque de los Muchachos Behatokian](#) dago. [Bisita birtuala](#) egingo dugu GTCra. [Galaxia-motei buruzko informazioa](#) bilatuko dugu. [GTCren irudi galerian](#) galaxia mota bakoitzaren 2 irudi bilatu eta Instagramen harmairudi bat egingo dugu.

5. Unibertsoaren jatorria: Big Bang teoria. [Animazioari behatu](#) eta txosten labur bat idatzi, zenbat denboratan eta zer ezaugarriekin sortu zen adieraziz: a) Unibertsoa; b) lehen izarrek distira egiten dute; c) Eguzki-sistema; d) Lurra sortzen da; e) Ilargia sortzen da; f) bititza sortzen da; g) lehen organismo zelulaniztunak sortzen dira; i) kontinenteak bereizten dira; J) Homo erectus agertzen da; K) Homo sapiens-a.

6.- Bakarrik al gaude Unibertsoan? [Contact](#) filma ikusiko dugu. Iradokitako ideiekin testua idatzi eta filmearen balorazio orokor bat egingo duteikasleek. Filmean, Seti Proiektuaz hitz egiten da. Proiektu hori zer den ikertu, eta haren jatorriari eta oinarriari buruzko txostena egingo dute, bertan haren funtsezko ezaugarriari eta egungo egoerari buruz hitz egingo dute.

7.- Azaleratzen ari diren gaixotasunak. [Multimedia aplikazioek](#) azaleratzen ari diren gaixotasunen oinarritzko ezagutzetara hurbiltzeko aukera ematen digute: azaldu grafiko baten bidez zein puntutan epidemia bihurtzen den pandemia, eta zehaztu COVID19ren kasuan gertatutakoa.

8. Artaldearen immunitatea [Irakurri informazio](#) hau: zer neurri har daitezke COVID-19ren aurrean immunitatea lortzeko? Zer argudiatuko zenuke neurri horien beharraz konbentzitzeko?

9.- Plastikoz inguratuta. Ikerketa txiki bat egingo duzue [plastikoen bidez sortzen den kutsadura](#) eta iraunkortasunerako bide luzea zehazteko.

10.- Material berriak. Denboraren lerro bat egin historian zehar sortutako material desberdinekin, haien aplikazio teknologikoa eta giza aurrerabidean nola eragin duten azalduz.

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 4

1.- UNIBERTSOAREN HEDAPENA: NOLA AZALDUKO ZENIEKE ZURE LAGUNEI GALAXIAK BANATZEN ARI DIRELA?

MANTENTZEA

Big Bang teoriaren arabera, Unibertsoa eztanda handi batean sortu zen, non materia eta energia guztia sortu zen - Unibertsoa hedatzean, galaxiak banandu egiten dira, elkarrengandik urruntzen dira euren artean dagoen espazioa handitu ahala. Gainera, urruntze-abiadura dagoen distantziarekiko proportzionala da. Inoiz ez diozu zeure buruari galdetu hori egia ote den? Urruntze abiadura zehaztu al dezakegu?

Ikerketa egingo dugu metodo zientifikoa aplikatuz. Horretarako:

- Lehenik zure hipotesia planteatu behar duzu: egia ote da galaxiak urruntzen ari direla?
- Hasi ikerketa. Bi puxika behar dituzu, koloretako errotuladore batzuk eta erregela bat.
- Prozedura:
 - Puxika puztu 10 cm inguruko diametroa izan arte eta forma eta kolore ezberdinetako galaxiak marraztu bere inguru osoan. Marraztean, elkarren artean bi 2 cm-ra jarri, bi 4 cm-ra eta bi 6 cm-ra.
 - Puxika puztu du 15 cm-ko diametroa izan arte eta aukeratu dituzun galaxien arteko distantzia neurtu. /
 - Puxika puztu 20, 25 eta 30 cm-ko diametroa izan arte eta galaxien arteko distantzia neurtu, kasu bakoitzean.
- Egin grafiko bat galaxien arteko distantzia irudikatzeko, puxikaren diametroaren arabera.
- Amaitzen duzunean, aztertu emaitzak eta atera zure ondorioak: egokia zen gure hipotesia? Unibertsoa hedatu ahala galaxiak banatzen ari direla ziurta dezakegu? Egia al da unibertsoaren tamaina zenbat eta gehiago handitu, orduan eta gehiago urruntzen direla galaxiak elkarren artean?

INDARTZEA Wikipedian honako hauen definizioak bilatu: galaxia, planeta, nebulosa, izarra, satelitea, galaxien kumulua, Esne Bidea, kometa. Neurriaren arabera antolatu, txikienetik handienera.

SAKONTZEA. [Alhambra proiektuari](#) buruzko informazioa bilatu eta poster digital bat egin [Canva](#)-rekin. Bertan, a) proiektuaren helburua zein den adierazi. b) 500000 galaxia baino gehiago identifikatu eta sailkatu ahal izan direla adierazi.

2.- PLASTIKOZ INGURATUTA

MANTENTZEA

- Asteburu oso batean gure etxean zenbat plastiko kontsumitu dugun idatziko dugu.
- Ezaugarrien eta motaren arabera sailkatu, [plastikoen eta birziklapenaren](#) taulari jarraituz.
- Zer plastiko-masa kontsumitzen dugu egunero? Eta bolumena?
- Gutxiago kontsumitzeko eta berrerabiltzeko irtenbideak proposatu.

INDARTZEA. Objektuetako bat aukeratu eta hura berrerabili ahal izateko modu bat proposatu.

SAKONTZEA. [Plastikoaren propietateak ikertu](#) materia gisa, eta haren masa, bolumena, dentsitatea, propietate espezifikoak, beroaren aurreko portaera, elektrizitatearen aurreko portaera eta ontzi gisa erabiltzeari buruzko ondorioak atera.

LANBIDE JARDUERARI APLIKATUTAKO ZIENTZIAK - DBH 4

1.-Segurtasun arauak errimatzen. Laborategian hartu beharreko neurriak gogoan izateko, honako [irudi](#) hauetan agertzen diren zenbakietan arreta jarri eta bertso bat asmatu leku horretan hartu beharreko [segurtasun neurriekin](#) zerikusia duena. Hemen daukazu [ingelesko eredu bat](#).

2.-Azukrea freskagarrietan. [Bideo](#) honetan ikus dezakezun moduan, azukrearen gehiegizko kontsumoa osasun arazo larria bihurtzen ari da. [Ikerketa txiki](#) honetan honako hau egingo duzu: freskagarri desberdinak hartu eta etiketak irakurri. Freskagarri mota bakoitzak duen azukre kantitatea ikusi eta gero, ordenatu gehien duenetik gutxien duenera. Jarduera osatzeko irakurri [artikulu](#) hau.

3.-Materiaren sailkapena kontzeptu mapa. Ariketa interaktibo honen bidez, [kontzeptu mapa](#) bat osatu beharko duzu materiaren sailkapenaren inguruan (substantzia puruak eta nahasteak). Jarduera osatzeko, bereizi [hurrengo elementuak](#) dagokien tokian. Orain, zuk zure kabuz kontzeptu-mapa bat egin beharko duzu. Klikatu hemen [kontzeptu-mapa](#) nola egiten den ikusteko.

4.-Txertoak, beharrezkoak dira? Koronabirusaren testuinguru honetan non mundu guztia txertoaren zai dagoen, badaude oraindik txertoen aurka daudenak ere... baina, zergatik daude txertoen kontra? Sasizientziek eragin handia daukatelako eta oztopo handia dira zientzia eta osasunaren garapenerako. Egin [triptiko](#) bat txertoen garrantzia aipatzen, osasun zentroetan banatzeko. Horretarako, jarri arreta [entzungai](#) honetan eta irakurri [artikulu hau](#).

5.- Berotegi efektua. Hemen daukazu berotegia efektuarekin zerikusia duen [testu](#) bat, bertan azalpenak eta grafikoak agertzen dira lantzen den teoria indartzeko. Erantzun planteatzen diren galderi. Informazio gehiago izateko, ikusi ondorengo [bideoa](#) eta osatu [eskema](#).

6.-Araztegi bat eraikitzea. Oraingo jarduera honetan ur [araztegi bat eraikiko](#) duzu elementu simple eta errazekin. Emandako dokumentuan pausoz pauso azaltzen da nola eraiki behar den eta egin ondotik, erantzun [proposatutako galderi](#).

7.-Zer da konpostagailu bat? Power-point aurkezpen bat egin beharko duzu konpostagailuen inguruan. Honako puntu hauek kontutan hartu beharko dituzu: Zer da konposta? Ze onura dakartza konpostak? Zer konposta dezakegu eta zer ez? Konpost eraginkor bat egiteko aholkuak. Zailtasunak. Konpostean agertzen diren izaki bizidunak. Konpostaren erabilerak

Dokumentu honetan daukazu aurkezpena egiteko beharrezkoa den [informazio guztia](#). Orrialde honetan aurkezpen txukun eta polit bat egiteko [aholkuak](#) ikusiko dituzu, kontutan har itzazu!

8.-Bock&roll bat egingo dugu! Aluminiozko paperak hainbat eta hainbat eragozpen ditu, bai osasunarentzat, bai naturarentzat. Horregatik, helburu nagusia erabiltzen dugun aluminio kantitatea gutxitzea da. Hori dela eta, zure [bock&roll-a](#) sortuko duzu, hemen dituzu [argibideak](#) (gaztelaniaz).

9.-Oinarrizko zientzia, zientzia aplikatua. Irakurri proposatzen den [artikulu hau](#) eta ondoren, erantzun [proposatzen diren galderi](#).

10.-Zure herbarioa egingo duzu! Jarduera honen bidez herbario bat nola egiten den ikasiko duzu. Zure inguruan aurki ditzakezun hostoak eta landare desberdinak bildu, [argibideak irakurri](#) eta bilduma osatuz joango zara. Hemen dituzu aurki ditzakezun [landare eta hostoen ezaugarriak](#).

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 4

1.-LARRIALDI EGOERAK LABORATEGIAN

Jakin badakigu laborategian material eta tresneria arriskutsuak maneiatzen ditugula. Babes neurriak hartzea oso garrantzitsua da eta nahiz eta ahalik eta hoberen betetzen saiatu, noiz behinka gertatzen dira hala istripu txikiak. Zer egin holako egoeretan?

MANTENTZEA

Laborategian lanean ari garela istripuren bat gertatuz gero, komeni da jakitea zer egin behar den. Irakurri [lehen sorospenetako dokumentu hau](#), bertan egoera desberdinetan nola jokatu behar dugun azaltzen da. Ondoren, [infografia](#) bat egin argibide horiekin laborategian jartzeko. Irakurri hemen infografia bat egiteko [argibideak](#).

INDARTZEA

Zer egon behar da botikinean? Etxeko botikina aztertuko dugu eta funtsezko materialak daudela ziurtatuko dugu. [Osakidetzaren webgunean](#) honen inguruko informazioa dago. Hemen dituzu zenbait produkturen [argazkiak](#).

SAKONTZEA

Orain, ikusi eta ikasitako lehen sorospenetako teknikak praktikan jarriko dituzu. Bideo bat grabatu beharko duzu non zu agertzen zaren teknika desberdinak egiten. Teknikak praktikan jartzeaz gain, prozesua laguntzeko behar adina azalpen eman ditzakezu. Informazio gehiago lortzeko ikusi [bideo1](#) eta [bideo2](#). Hemen dituzu [eskuko telefonoarekin grabatzeko aholku](#) batzuk.

2.- UR GEZAREN ARAZOA

Jarduera honetarako sarrera gisa, [bideo](#) bat ikusiko dugu. Bideo honetan urarekin zerikusia duten hainbat kontu aipatzen dira: uraren egoerak, uraren zikloa, uraren banaketa...

MANTENTZEA

Hainbat aldiz ikasi dugun legez, uraren mugimenduak ziklo bat osatzen du Lur planetan. Gauzak horrela,

- nola liteke ur eskasiaz hitz egitea?
- Agortzen ari ote da ura?
- Non dago arazoa?

Irakurri [“desorekari aurre egiten”](#) eta [“Krisi isila”](#) testuak eta erantzun aurreko galderei.

INDARTZEA

Irakurri hemen aurkezten den [ipuina](#) eta egin konparaketa bertan dagoen txantiloia erabiliz.

SAKONTZEA

Orain arte ikusi den moduan, urean zenbait mikroorganismo arriskutsu aurkitzen dira. Hortaz, hain da garrantzitsua uraren arazketa. [Esperimentu txiki](#) bat egingo dugu uraren kutsadura aztertzeko. Esperimentua egin ondoren, erantzun bertan proposatzen diren galderei.

Geografia eta Historia

*Aplikazio digitalei dagokionez, irakasleak bere ikastetxean indarrean dagoen plataformaren arabera (GSuite, Office 365 edo Moodle) egingo du aukeraketa.

GEOGRAFIA ETA HISTORIA – DBH 1

- 1. Hominizazio-prozesuko hominido motekin katalogo bat egin.** Bakoitzaren argazkiaren ondoan lau datu: ezaugarri fisikoak (ibilkera ere bai), jakiak, bizimoduak, antolaketa-erak.
- 2. Gizakiaren eboluzioaren inguruan antzerkitxoa egin.** Banatu gelakideen artean hominido desberdinak eta binaka prestatu bi minutuko antzerkitxoa irailerako, klasera bueltatzean gela aurrean antzetzeko (off-eko ahots batek jaso dezake egiten zutenaren inguruko egoeraren bat, adibide gisa). Erreparatu karakterizazioan nola mugitzen zen bakoitza, zeukaten ile kopurua, zer jaten zuten eta nola bizi ziren.
- 3. Youtuber bihurtu.** Zure inguruan, koronabirusaren inguruan bizi izan duzun edo entzun duzun zerbait deigarriaren inguruan aitzakiatzat hartuta, youtuberrarena egin. Landu gidoi interesgarri bat (agian barregarria) eta kontatu bi minutuan.
- 4. Mapa tematikoa.** Udan, koronabirusaren eraginez, eta hedabideek ematen duten informazioa jarraituta, egin mapa tematiko bat adieraziz non pilotzen ari diren turista gehienak eta zergatik.
- 5. Gure klima nolakoa?** Balkoira atera eguraldi desberdina egiten duen pare bat egunetan eta prestatu bideo-tutorial bat kontatuz zein den Euskal Herriko klima, aldera dezakegun beste lekuren bateko klimarekin.
- 6. Zenbat gaixotasun historian zehar!** Historian egon diren gaixotasun eta birus desberdinen inguruko [bideoa](#) ikusi eta kronograma bat egin ilustrazioekin.
- 7. Collage bat egin liburu-markatzaile formarekin:** artea eta edertasuna denboran zehar.
- 8. Kromo bilduma.** Euskal Herrian Santi Mamiñeko aztarnategien [irudiak](#) bilatuko ditugu. Kromo bilduma prestatu, irudi bakoitza kromo bat izango da. Kromoaren atzealdean azalpen txiki bat egongo da, azpimagarriena. Plastifikatzeko aukera badugu, aurrera.
- 9. Artea eta kultura-ondarearen kontserbazioaren garrantziaz hausnartu.** Aztertu [OMAKo basoari](#) gertatzen ari zaiona. Bilatu informazioa, eta prestatu irratiko tertuliakide gisa esango zenukeena (idatziz prestatu edota audio moduan).
- 10. Lehen zibilizazioetarako bidaia bat.** Hartu lehen zibilizazioak: Mesopotamia, Egipto, Grezia, Atenasko demokrazia eta Erroma. Aukeratu bat eta prestatu bertara joateko bidaia bat. Bidaia foiletoa prestatu. Azaldu bertan ikusiko zenukeena, eta sakon ezagutzeko dituzun aukerak.

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 1

1.- HOMO-KATALOGOA MARTXAN

Bitxikeriei erreparatzea, maiz, entretenigarria izaten da, udan, entretenitu beharra dugu. Eta gure aurrekoak, hominidoak gaia berriro aztertzean, seguru, bitxikeriak aurkituko ditugula. Modu guztiz bisualean egingo dugu.

Erronka hau proposatzen dizugu:

- Katalogo bat osatu, hominizazio-prozesuko hominido guztiak azalduz.
- Tresna hau edonori utziz gero, hominidoen arteko ezberdintasunak eta eboluzioa ulertu ahal izateko.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Hartu Internet edo liburu entziklopediko batetik hominizazio-prozesuko hominido bakoitzaren irudia eta koloreetan inprimatu.	Idatzi motz, bakoitzaren ezaugarri: fisikoak, bizi-modukoak eta elikaduraren ingurukoak, eta irudiaren ondoan azaldu.	Irudi eta informazio guzti horrekin katalogo bat sortu, estetikoki erakargarria dena.

2.- EBOLUZIOAREN ANTZEZPENA

Ondo pasa eta aldi berean ikasitakoak ondo finkatzeko tresna ona izan ohi da antzerkia. Binaka, hominidoen une bat hartuko dugu eta udan antzerkitxo prestatuko dugu irailean, bueltan, gelan antzezteko.

Erronka, hominidoengana hurbiltzea izango da antzerkiaren eskutik:

- Hominido-eta bakoitza hartu, eta irudikatu une hartako bizimodua.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Etxean ditugun gauzeekin mozorroak, espazioa...antolatu eta osatu, aukera izateko kontatzeko homo bakoitza nolakoa zen.	Bi minutuko iraupeneko gidoia prestatu, bertan irudikatzeko itxuraz nolakoak ziren eta zergatik, bizimoduan emandako aldaketak.	Dena prestatuko da irailean gelan antzezteko. Kontaketaren bidez, argi gelditzeko eman zen eboluzioa.

GEOGRAFIA ETA HISTORIA – DBH 2

- 1. Demografia...zer?** Osatu glosario bat demografiari buruzko oinarritzko kontzeptuekin. Zerrendatu jarriko dituzun 15 hitzak, definizioa eman, ondo antolatu eta bildu A5 formatuan.
- 2. LETTERING.** Glosario horretako hitz bat aukeratu eta egin zure LETTERING proposamena. Instagramen partekatu #udangozatuzikasi traolarekin eta lehiaketan parte hartu.
- 3. Demografiaren portaera eta koronabirusa.** Aztertu demografiaren portaera munduko hiru leku hauetan: Txina, Italia eta Senegal. Ikusi koronabirusak zein eragina izan duen hiru leku hauetan eta esan zure ustez erlaziorik duen demografiarekin, agian, ala ez. Prestatu zure arrazoiak. Antolatu taldean, irailean, bueltan.
- 4. Nola imajinatzen duzu mundua 50 urte barru ?** Eta Euskadi? Hiri-paisaia, demografia bezalako puntak kontuan izanda (bestelakoak ere gehitu) Iritzi-zutabea idatzi eta ikastetxeko aldizkarian argitaratuko dira hainbat iritzi.
- 5. Antzezten.** Bilatu herri eta hirian askotan egiten den Erdi Aroko Azokaren baten inguruko bideoren bat. Bertan aukeratu karakterizazio bat. Etxean duzun arroparekin moldatu garaiko mozarroa. Biko taldetan egokitu zaizun etaparen ezaugarri nagusiak bildu, eta antzerkitxoak prestatu bueltan gelan antzezteko: Erdi Aro Goiztiarra, V-XI. Mendeak. Erdi Aro Berantiarraren krisia. XII-XV mendek.
- 6. Merkatariak asko izaten ziren garai hartan.** Garai hartan ukendu asko izaten ziren. Asmatu zure ustez koronabirusa saihesteko sor zezaketen ukendu bat. Proposatu osagaiak, eta esan zergatik horiek erabili.
- 7. Ibiltzera! [Done Jakue](#)** Bidearen bideoak ikusi. [Ibilbide bat hautatuta](#), eta mapan ibilbidea marraztu. Etxetik gertu gelditzen bazaizu zatiren bat egiten ahalegindu.
- 8. Artea nonahi.** Bidearen bukaeran eta bidean zehar arte adierazpen asko dira, hautatu bat: orduko eliza, katedral, zuk gogokoen duzuna eta prestatu erreportaje idatzi bat (2 orrialdekoa). Informazioa ondoko [estekatik hartu](#).
- 9. Zoaz hondartzara eta bilatu maskor handi bat,** prestatu erromesek daramaten bezalako bat. Ikusi Interneten zergatik eraman ohi duten maskorra eta Erdi Aroko letrarekin kartulina batean idatzi.
- 10. Irratiko bitxikeriak sekzioa egin,** Erdi Aroko pertsonaia famaturen bat aukeratu, eta bi minutuan kontatu zer duen bitxitik inork ez ahazteko.

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 2

1.- LETTERING ADITU BILAKATZEN

Uda bada garaia gauza berriak ikasteko, lettering-a zer den eta nola egiten den, adibidez. Hitzak, kolore eta askotariko formekin egitea, ederra izateaz gain, oso entretenigarria da. Maite dituzunei oparitzeko ere guztiz praktikoa.

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Aurten gure arloan ikasi dituzun hitz gogokoen artean, bat hautatu, eta gustatzen zaizun kolore eta formekin margotu.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Bilatu geografia edo historian, aurten ikasitako 15 hitz (Glosario bat osatu aurtengo hitz berrieekin. Azalean, Lettering-a jarri.	Glosarioan hitz bakoitzaren esanahia jarri eta alfabetikoki edo ikasitako hurrenkeraren arabera kokatu.	Kontatu bideo batean nola sortu duzun lettering-a eta aholkuak eman errazago suertatzeko.

2.-SORTU AHALA KONTATU...

Auto-ikasketara jotzen dugu, etxean, plazeragatik besterik gabe, gauza hainbat ikasi nahi dugunean. Bideo-tutorialak ohikoak ditugu horretan. Lehen osatu dugun glosarioa, eta azala, tutorial batean kontatu, besteei prozesu horretan laguntzeko.

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Bideo-tutorial bat egin, kontatuz nola egiten den glosario bat lettering-a txertatuz.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Glosarioa osatzen joatean, grabatu irudiak, gero bideoa egin ahal izateko. Beste horrenbeste egin lettering-a egiteko unearekin, irudiak hartu.	Irudiak edukita, idatzi kontatu nahi duzuna. Alegia, egin bideoaren gidoia. Pentsatu dituzun irudietan hori egiteko.	Irudiak eta gidoia antolatuta ditugunean, muntaiari heldu. Musika egoki bat aukeratu eta osagai guztiak txertatu.

GEOGRAFIA ETA HISTORIA – DBH 3

1. **“Garai modernoak”** izeneko Chaplin-en pelikulan, industrializazioaren kritika egiten da. [Pelikula osoa](#) ikusi. Hurrengo zati honek aukera ematen du ironiaz tratatzen den teoriari buruz titular bat sortzeko: Sortu, beraz, teoria horren inguruan titular bat .
2. **Alde ala kontra!** Ikastetxera bueltatzean, gelakideen artean eztabaida sortuta, bigarren sektorearen inguruko alde eta kontrako rolak ezberdindu. Ordurako paper batean eraman aldeko eiteak eta beste batean kontrakoak. Egun hori iritsi arte ez baitakizu zein rol egokituko zaizun.
3. **Nire iritzia.** Monarkia autoritario, parlamentario eta absolutuek zerikusia dute giza eskubideekin, monarkia mota bakoitzak horien alde edo kontra egiten baitute. Sarean, [Bill of Rights](#) (1689ko Eskubideen Aitorpena) testua bilatu, eta webean [Giza eskubideen adierazpen-unibertsala](#) irakurri. Monarkia mota eta eskubideen iritzi-zutabea idatzi.
4. **Manifestu bat.** FAO, Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadurarako Erakundea da. [Bideo honetan](#), munduko nekazaritzaren egungo egoera azaltzen du: Bideoak sei gako ematen ditu, nekazari txikiei laguntzeko. Sei ideia horietan zentratuta hiritarrei banatzeko manifestu bat idatzi eta buzoneatu bertako kontsumoa sustatzeko. Ideiak [Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalean](#).
5. **Irakurri, bideoa ikusi eta gogoeta egin.** Elikagaien eta lehengai batzuen jatorriaz jabetzeko. Bost ebidentzia zientifiko transgeniko eta pestiziden kalteez artikulua irakurri. Osagarri, gai honen inguruko bideoa ikusi, hausnarketarako baliagarria: [“Dos tomates y dos destinos”](#).
6. **Galdetzen.** Herriko baserrietara joko da, eta bertako baserritarrei galdera sorta egingo diegu, jakiteko nola ekoizten dituzten barazkiak. Ahal bada, bideoan grabatu, herriko telebistan edo udalaren webgunean ikusarazteko (sakelakoarekin egin)
7. **Eta...berriro gertatuko balitz?** Etxetik ateratzeko aukerarik ematen ez digun bestelako birus bat etorriko balitz, baserrietan ikusten dituzun jakiekin aste osoko dieta bat osa daiteke? Ahalegindu. Zerrendatu zein jaki ikusten dituzun eta nola banatu asteko otorduetan. Agian uste duguna baino autonomia handiagoa izan dezakegu bertako baserrietakoa kontsumituta (edo ez)
8. **Mahai-inguru bat.** Iraileko bueltan, jakien inguruko mahainguru bat antolatu ikaskideen artean eztabaida sortzeko.
9. **Dokumentala taldean.** Hirugarren sektoreari lotuta, EAEko ondarearen elementu adierazgarri baten azterketa egin. Gelakideok adibide ezberdinak eman, EAEko ondarearen panorama orokorraren eskema osatzeko. Horretarako, [webgune honetan aurkituko duten eskemari jarraitu](#), Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ondorareren bat hautatuta dokumental bat prestatu gure lurraldeak beren ondarearen bidez ezagutzeko (eredua Bilboko ondarean oinarritzen da: Ikasle bakoitzak berea egingo du, eta denak batuta dokumental forma emango diogu. Helburu hori izanda, denek dokumental ikutua eman behar diote kontaktari. Formatua audioa izango da, gero, irailean, muntaia egiteko.
10. **Ondareen collagea.** Landutako ondare guztiekin Euskadiko mapa tematiko bat egin, ondareak collage moduan jorra ditzakeena. Hau da, ondareen argazkiak moztu eta mapan itsatsita.

PROPOSAMEN GARATUAK - DBH 3

1.- GARAI MODERNOAK

Zinea beti da atsegina, baita udan ere. Chaplinen klasiko bat ikustea beti da burua entretenitu eta janzteko modu bat.

Pentsamendu kritikoa garatzeko ezinbesteko filma da, udararen lasaitasunez aztarna utziko diguna.

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Garai Modernoak filma arretaz ikusi, eta bertan kritikatzeko duena titular batera ekartzea, norberari iradokitzen diona.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Ikusi Garai Modernoak filma eta erne egon bertan kritikatzeko denarekin.	Pelikula ikusi bitartean, jaso oharra zuzentzeko, ondoren, hortik titular esanguratsua bat ateratu ahal izateko.	Titularra txukuna izan dadila zaindu, irailean sortutako guztiekin lehiaketa bat egingo baita.

2.- PENTSATU ETA KONTATU...

Ikusi berri duzun filma, Garai Modernoak, mutua da, baina asko esaten du.

Filma aitzakia hartuta, hausnartu egingo dugu egungo langileari buruz: lan-baldintzak, arazoak, harremanak...

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Gutun bat idaztea, EEBBetan duzun lagunari.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Lagunari kontatuko diozu lotura egin duzula, ikusi duzun filma, eta egunero, iristen zaizkizun langileen inguruko bizipenen artean.	Pelikulako eite kritikagarriak alderatu gaur egun iristen zaizkizun horiekin, paralelismoak ezarri.	Gutunean hausnartu orduko eta oraingo lan-baldintzen inguruan. Eta garai bakoitzeko testuinguruaren eragina aitatzeko ahalegindu.

GEOGRAFIA ETA HISTORIA – DBH 4

- 1. Iritzia idazten.** COVID-19aren eraginez, geopolitikan gauzak aldatuko direla diote adituek ondorengo [artikulu](#)n ere: Artikulua irakurri ondoren, zutabe batean idatzi zure iritzia. Gelakideekin foro bat ireki whatsappen horren gainean eztabaidatzeko. Bakoitzaren ustez, zein izango dira potentzia ekonomiko eta politiko handienak hurrengo hamarkadan? Zergatik? Eta aldaketa nagusiak?
- 2. Irratian kontatzen.** ACNUR-ek (NBEko Errefuxiatuentzako Agentzia) 2016an zerrendatutako [munduko 5 gaztazka larrienak](#) irakurri. Ondoren, irratirako albiste moduan kontatu (minutu bat).
- 3. Entzun.** Mikel Urdangarin eta Izaro Andresen [ERREFUXIATUARENA](#) kanta entzun, letra atera eta ikasi buruz.
- 4. Kazetari bihurtuta.** Nola sortu zen sindikalismoa? Galderari erantzuteko [baliabide](#) erabili. Bertako informazioa aztertu, atxikitako bideoa ikusi, eta kazetari-rola hartu. Aurreko galderari erreportaje batekin erantzun. Honetarako aukerak: bideo bat grabatu, audio bat aurkeztu edo kazetaritzako artikulua idatzi.
- 5. Ardatz historikoa sortu.** Bigarren Mundu Gerraren arrazoiak, bilakaera eta ondorioak aztertu [hurrengo estekan](#). Bertako datuekin, Bigarren Mundu Gerrako gertakari nagusienekin ardatz historikoa osatu. Une bakoitzean gertakizun bat nabarmendu.
- 6. Globalizazioaz.** Interneteko zein bestelako baliabideetan egindako bilaketen bidez, Anthony Giddens-ek (soziologoa), Joseph Eugene Stiglitz-ek (ekonomista), Toni Comín-ek (ekonomista) eta Eduardo Galeano-k (idazlea) globalizazioa kontzeptuaren inguruko definizioak aztertu. Eta ondoren, entsegu bat idatzi globalizazio-prozesuaren alde zein kontrako definizioen inguruan iritzi kritikoa eman.
- 7. Fake news...Kontuz!** Mundu globalizatu honetan, asko orokortu dira “fake news” direlakoak. Entzundako edo asmatutako berri bat sortu, globalizazioaren inguruan egunkari fiktizio baterako. Ikusi ondorengo [estekan](#) egunkari itxura duten berrien sortzailea.
- 8. Argazki-liburua.** Zer da arte digitala? Osatu, zuretzat esanguratsuak diren arte digitalaren piezekin argazki-BOOK bat. Argazki bakoitzaren ondoan titular bat jarri, lanak zuretzat esan nahi duena laburbil-duz. Globalizazioaren fenomenoarekin lotu eta baita egungo EAEko artea eta kulturarekin ere.
- 9. Mundua, banatuta: eskema bat.** Potentzia ekonomikoak, garapen bidean dauden herrialdeak eta azpigarapenaren mundua berraztertu. Munduko desoreken informazioa [esteka honetatik](#) atera: Zein irizpidek markatzen duten aurreko hiruren taldekatzeak, eskema baten bidez esan. Eta Mapamundi batean identifikatu lehen hiru taldeak.
- 10. Museoak bisitatzera!** [Guggenheim museoan bisita birtuala](#) egin. Bideo bat egin sakelakoarekin beren webgunean eskegitzeko. Datu praktikoak eman: eraikina, bilduma garrantzitsuak, ibilbide gustukoena... eta batez ere zure iritzia, museoak erabiliko baitu beste bisitari batzuentzat erreferentzia izan dadin. Askotariko materialak erabili.

PROPOSAMEN GARATUAK - DBH 4

1.-BABESA, DENON ELIKAGAIA

Udak pentsatzen ere lagundu behar digu. Patxadak aukera ematen du horretarako. Errefuxiatuen egoeraz aritzeko jarduerak izango dira maila honetakoak.

Babesa ezinbestekoa dugu bizitzeko, eta zibilizazioen historian, lehen eta orain, babes-bila herrialdeetatik at joan behar izan dugu.

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- ACNUR-en 2016ko bideoa ikusi eta esaten dena irratiko albiste moduan jartzea.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Bideoa ikustean, atera ideia nagusiak. Ideia horiei albiste tankera eman, kontuan izanda irratirako dela, beraz, hedabidearen ezaugarriak zaindu.	Albistea idatzi eta lokuzioa egin, sakelakoaren bidez. Gehienez minutuko pieza izango da.	Aprobetxatu ikusi, entzun, idatzi eta kontatu duzuna horren inguruan pentsatzeko. Munduko 5 arazo larrienen inguruan.

2.- MUSIKAN BABESA HARTU

Musikak, arazo asko ulertzen laguntzen digu. Munduko arazo larrienetako bat ere ulertzen edo, lagun diezaguke. Helburu horrekin hautatu dugu, Mikel Urdangarinek eta Izaro Andresek abesten duten ERREFUXIATUA-RENA kanta.

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Errefuxiaturena kanta entzun, letra papereratu eta buruz ikasi. 5 lerrotan esan zure buruari zer pentsatzen duzun esaten duenaz.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Kanta <i>Youtuben</i> bilatu, entzun, letra paperera eraman.	Letra, paperera ekartzean, buruz ikasi. Behin eta berriro entzunda.	Buruz ikastean, ondo ulertu eta jaso zer esan nahi duen. Eman zure iritzia 5 lerrotan.

Heziketa Fisikoa

*Aplikazio digitalei dagokionez, irakasleak bere ikastetxean indarrean dagoen plataformaren arabera (GSuite, Office 365 edo Moodle) egingo du aukeraketa

HEZIKETA FISIKOA - DBH 1

1. ***Udarako errutina osatu.** Egunero egin behar da ariketa fisikoa. Uda sasoirik ederrena da ariketa fisikoa egiteko. Hemen zenbait aholku topatuko duzu bideratzeko.
2. ***Parkourra plazan.** Herri edo hiriko plaza batean egiteko jarduera fisiko ezin hobea dugu parkourra. Ba al dakizue zer den? Baina arriskurik hartu gabe!
3. ***Herriko ibilbidea.** Zure herri ingurunea hobeto ezagutzeko ibilbide bat osatu lagun batekin edo batzuekin. Eskuko telefonoko gmaps edo antzeko aplikazio erabili edo herriko plano baten laguntzaz.
4. **Urpean igeriketa.** Gertuko ibai batera edo hondartzara senideekin edo lagunekin joan ahal zara igeri egitera eta bide batez, aurkitu ur azpian bizi diren arrainak, zomorroak, karramarroak, algak, landareak, oskolak, etab. Ur-betaurrekoak ezinbestekoak dira...
5. **Antzineko jolasak lagunekin.** Zuk eta zure lagunek galdetu zuon gurasoei edo aitite-amamari txikitan gehien gustatzen zaizkien jolasak eta probatu ezazue.
6. **Lagundu birziklatzen.** Ikertu etxean nola birziklatzen duzuen eta pentsatu zertan lagundu dezakezun etxeko prozesua hobetzeko. Gainera, badakizu nora bota behar den organikoa, plastikoa, papera, beira, pilak, olioak, orokorrekoak...

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 1

1.-*UDARAKO ERRUTINA OSATU. Egunero egin behar da ariketa fisikoa. Añorgako 105 urte bete zituen [Joakinak esaten zuen moduan](#). Bakoitzak bere gustuko ariketa fisikoa aurkitu behar du, batzuk badute, beste batzuk, aldiz, bilatu behar!

Uda sasoirik ederrena da ariketa fisikoa egiteko. Paseatzen atera, korrika egin, talde kirolen bat lagun artean jokatu, mendira, hondartzara, txirrindulan ibili...

Eguzkiarekin kontuz ibili behar da. Eguneko ordua zaindu behar da beroaren arabera. Ura edatea ezinbestekoa da gure gorputza ondo hidratatzeko.

Arropa egokiak janztea ere oso garrantzitsua da ariketa fisikoa egiterakoan.



Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Egunero 30 minutuko ariketa fisikoa egitea GUTXIENEZ. Lagunekin edo bakarrik. Gustukoa duzuna edo posible duzuna. Zuk aukeratzen duzu!
- Eskola orduetan ikasitakoa praktikan jarri: arropa egokiak eta beroketa hasieran. Erlaxaziorako edo luzaketak, amaieran. Gogoan izan ere ariketaren ondorengo garbiketa eta, noski, arropak aldatzea.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Astean 3 aldiz ariketa fisikoa egin. Higiene eta osasun azturak zaindu.	Astean 4-5 aldiz ariketa fisikoa egin. Higiene eta osasun azturak zaintzeaz gain, hidratatzeko eta energia berreskuratzeko, errutina bat ezarri (fruta eta kakao-esnea...).	Egunero ariketa fisikoa egin. Seguruenik, higiene eta osasun azturak dituzu, baita energia berreskuratzeko eta hidratatzeko zaintzen jarraitu! Egiten duzun ariketaz gain, bilatu ariketa konplementario bat falta zaizuna konpentsatzeko.

Oso zalea ez denarentzat baliteke, erronka hau pixka bat “aldatz gora” egitea. Zure lasaitasunerako, hemen duzu [lagungarri bat](#). Denetarikoa agertzen da!. **Animo!!**

2.-*PARKOUR PLAZAN. Herri edo hiriko plaza batean egiteko jarduera fisiko ezin hobea dugu PARKOUR-a. Ba al dakizue zer den? [Hemen adibidea.](#)

Lagun batekin edo batzuekin aukeratu herri/hiriko plaza egoki bat eta Parkourrean aritu. Saiatu mugimendu ezberdinak egiten, arriskurik hartu gabe. **Hori da parkourraren lehen legea**
Segurtasuna areagotzeko, kaskoa eta belaunekoak izatea derrigorrezkoa.
Egiten dituzuen saltoak eta mugimenduen bideoak irakasleari erakutsiko dizkiozu datorren ikasturte hasieran.



Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Herri/hiriko plaza batean oztopoak bilatu eta Parkourreko mugimenduak egin.
- Taldean bat saltoka ari denean besteak grabatu, egindako txiri-bueltak denok ikusi ahal izateko ikaskideekin irailen.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Oztopo batetik bestera salto egiten saiatu. Beti segurtasuna mantenduz.	Metro bateko oztopo bat gainetik pasatzen saiatu. Beti segurtasuna mantenduz.	Aurreko biak jarrian egin, eta distantzia luzatzen. Beti segurtasuna mantenduz.

3.-*RUTA LOCAL. Zure herri ingurunea hobeto ezagutzeko ibilbide bat osatu lagun batekin edo batzuekin. Eskuko telefonoko Gmaps edo antzeko aplikazio erabili edo herriko plano baten laguntzaz.

Lagun batekin edo batzuekin aukeratu nondik joango zareten herri ingurunean baita ondoko baso, mendixka edo landa-ingurunean ere. Informazioa bildu erreferentziekin eta eraman gero ez galtzeko. Ibilbidean zehar atera argazkiak gustatu zaizkizuen lekuetan gero oroigarriak izateko zuekin.



Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Zure gertuko ingurunean dagoen herri edo landa ibilbide bat aukeratu lagunekin joateko. Gmaps edo antzeko aplikazio kontsultatu edo plano batean ibilbidea izan prest.
- Lagunekin prestatu beharrezko gauzak motxila batean (arropa, eskuko telefonoa, zerbait pikatzeko, ura...)

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
1,5-2 orduko ibilaldia egin; ezagutzen dituzuen herriko hainbat auzunetatik pasatuko zarete.	2-2,5 orduko Ibilaldia egin; herri inguruko buelta osoa egingo duzue, landa ingurune batetik ere pasatzen.	3 orduko Ibilaldia egin; ezagutzen ez duzun landa ingurunetik ere sartuko zarete herriko ibilbidean.

HEZIKETA FISIKOA - DBH 2

1. ***ibilaldia bizikletarekin.** Zure herri ingurunea hobeto ezagutzeko ibilbide bat osatu lagun batekin edo batzuekin. Herriko plano bat eskuratu edo gmaps edo antzeko aplikazio erabili nondik nora joango zareten planifikatzeko.
2. ***Malabarrak.** Malabar pilotak baldin badituzu, mendira, hondartzara edo plaza batera joan eta ekin. Ez badituzu, aurrenik sortu egin beharko dituzu!
3. **Olatuak hartu body-board batekin.** Ziur zure familiakoekin edo lagunekin hondartzara joango zarela uda honetan. Eskuratu horietako taula bat eta probatu olatuak hartzean horren gain... Sekulakoa! Eta hegatsekin olatuaren abiadan errazago jarriko zara.
4. **Frontenis partidak.** Herriko pilotalekura hurbildu lagunekin, erraketekin eta gomazko pilotekin. Bi-biren kontra partidak jokatu eta probatu atzelaria zein aurrelaria aritzen.
5. **Ortuan lagundu.** Seguru duzula familiako edo auzokide batek ortua duena. Eskatu berarekin aritzea bertako lanetan laguntzen. Asko ikasteaz gain ikusiko duzu indarra, erresistentzia, eta erresilientzia beste modu batez garatu ahal direla.
6. **Kaleko saskibaloia.** Lagunekin geratu parke bateko saskibaloia zelaietan edo uztai bat dagoen lekuan 3-3ko partidak jokatzen HF saioetan ikasitakoa praktikan jartzeko.

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 2

1.-*IBILALDIA BIZIKLETAREKIN. Zure herri ingurunea hobeto ezagutzeko ibilbide bat osatu lagun batekin edo batzuekin. Gmaps edo antzeko aplikazio erabili edo herriko plano bat eskuratu.

Lagun batekin edo batzuekin aukeratu nondik joango zareten herri ingurunean edo ondoko landa-ingurunean aproposa dena bizikletaz ibiltzeko. Informazioa bildu erreferentziekin eta eraman gero ez galtzeko. Ibilbidean zehar atera argazkiak gustatu zaizkizuen lekuen oroigarriak izateko zure lagunekin.



Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- [Zirkulazio arauak](#) ezagutu eta errespetatu behar dituzula kontuan hartu. Bidegorritik gogoratu 20km/orduko abiadura ezin duzula gainditu, eskumatik joan eta kaskoa eraman behar duzula.
- Landa ingurunetik bada, astiro joan eta adi bideko zuloekin, ziurtatu frenoak ondo dituzula eta ez ahaztu kaskoa

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
1,5-2 orduko ibilaldia egin, ezagutzen duzuen paraje batetik.	2-3 orduko Ibilaldia egin, bidegorri eta landa ingurune ezagun batetik ere pasatzen. Eraman edatekorik.	3-4 orduko Ibilaldia egin, ezagutzen ez duzuen landa ingurunetik ere adi-adi sartuz, jateko eta edateko egokiarekin.

2.-*MALABARRAK. Malabar pilotak baldin badituzu, mendira, hondartzara edo plaza batera joan eta malabarrak egin. Ez badituzu, aurrenik sortu egin beharko dituzu!

Malabarren mugimenduak zenbakiz izendatzen dira. Esku batetik bestera joaten diren mugimenduak, zenbaki bakoitiak dira(1,3,5...) eta esku batekin bota eta esku berarekin hartzen direnak, zenbaki bikoitiak (2,4,6...). Pilota jaurtitzean hartzen duen altueraren arabera, zenbakia handiagoa edo txikiagoa izango da. Hasiera batean 1, 2 eta 3 zenbakiekin nahikoa dugu:

1 zenbakia: esku batetik bestera, behetik.

2 zenbakia: esku batekin bota eta esku berarekin hartu.

3 zenbakia: esku batetik bestera, goragotik.



Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- [Azalpen bideoa](#) ikusi ondoren, pilotarekin zure mugimenduak sortzea
- Gogoratu pazientzia oso garrantzitsua dela malabarrak egiten ikasteko!


INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Pilota batekin mugimendu ezberdinak egingo ditugu. 1, 2 eta 3 zenbakiak eta bururatzen zaigun edozein mugimendu.	Bi pilotarekin hasiko gara egiten mugimenduak. 3 (esk) - 1 (ezk) zenbakiak 3 (esk) - 3 (ezk) zenbakiak 2 (esk) - 2 (ezk) zenbakiak	Hiru pilotekin egingo ditugu mugimenduak. Ohikoena 3 (esk) - 3 (ezk) - 3 (esk)... Zutabeak 2 (esk) - 2 (esk-ezk)...

HEZIKETA FISIKOA - DBH 3

1. ***Surfa hondartzan.** Udako berotan gure kostaldeko hondartza batera hurbildu. Oreka eta koordinazioa modu dibertigarrian lantzeko surfa itzela da!
2. ***Mendi ibilbidea.** Mendira joan lagun batekin edo batzuekin. Asia modu osasuntsu baten gozatzeaz gain, aplikazio baten bitartez, ibilbideko ikuspegiak eta lagunei ateratako argazkiekin erregistratu ere egin dezakezu.
3. **Menu osasuntsuak.** Etxeko menuak prestatzen laguntzeko eskaini zure burua etxean eta erakutsi elikadura osasuntsuari buruz ikasi duzuna aplikatzen eta aurkezpen goxo eta erakargarriekin.
4. **Koreografia lagun artean.** Eskuko telefonoan ikusten dituzuen [bideoak](#) bezalakoak zuek ere egin dezakezue bat: pentsatu, aukeratu gustuko mugimenduak, erritmora doitu eta zuon artean praktikatu sinkronizatu arte. Gero igo eta partekatu lagun artean denok baloratzeko. Jaietan seguru etekina aterako diezuela!
5. **.Solidaritatea udan.** Klasean duzuen desgaitasun bat duen ikaskide bati proposatu bere gustuko PROPOSAMEN fisiko bat berarekin egiteko. Behar izanez gero, lagundu ahal duzuen moduan eta jarduera egokitu, berak ere berdintasunean parte hartzeko.
6. **Botila husten.** 6-8 metroko lauki batekoko puntetan kokatuta, 4 jokalariek botila bete ur eta tapa barik, jolasten da batek baloia jaurtitzen botila baterantz. Jausiz gero altxatzeko baloia eskuratu eta, itzuli bitartean, jaurtitzailak lagundu ahal dio husten jabea etorri arte. Orain zure txanda da!

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 3

1.-*SURFA HONDARTZAN. Udako berotan gure kostaldeko hondartza batera hurbildu. Oreak eta koordinazioa modu dibertigarrian lantzeko surfa itzela da!


<p>Bakarrik edo lagunekin hobeto, informazioa bilatu surf ikastaroa zein hondartzatan egin dezakezuen. Edo dakien lagun bati proposatu zuei irakastea...</p> <p>Snowboard edo monopatinean ibili bazarete errazagoa da. 2-3 saio ikasten nahikoa da disfrutatzen hasteko olatuak hartzean. Ez zara damutuko. Eguzkirako babez handiko krema ez ahaztu.</p>	 <p style="font-size: small; text-align: right;">Photo by DJ Slane from Freemages</p>
--	--

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Bilatu hurbileko hondartza bat surfeko klaseak hartzeko, ahal bada lagunekin
- Hainbat saio egin ondoren, olatuak hartzen dituzu taula gainean, belauniko edo zutik.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Olatuak hartzen dituzu gehienetan belauniko jartzen taula gainean.	Olatuak hartzen dituzu belauniko jartzen taula gainean eta zutunik segundo batzuetan.	Olatuak hartzen dituzu zutunik jartzen taula gainean olatuaren ibilbidean zehar. Hasi zara norabidea aldatzen.

2.-*MENDI IBILBIDEA. Mendira joan lagun batekin edo batzuekin. Asia modu osasuntsu baten gozatzeaz gain, aplikazio baten bitartez, ibilbidea argazkiekin erregistratu ere egin dezakezu.

<p>Lagun batekin edo batzuekin adostu zein menditara joango zareten. Informazioa bildu erreferentziekin eta eraman gero ez galtzeko. Ibilbidea eta ateratako argazkiak grabatu ditzakezu Relive aplikazioaz.</p> <p>Irakasle batek bideo hau sortu du adibide gisa ikasleentzat.</p>	
--	---

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Zure gertuko ingurunean dagoen mendi paraje bat aukeratu lagunekin joateko. Telefonoan Relive edo antzeko aplikazio bat deskargatu eta ikasi.
- Lagunekin prestatu jakiak, likido eta material egokia (janzkera, botak, motxila, eskuko telefonoa...)


INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
1,5-2 orduko ibilaldia egin; ingurune hori ezagutzen duzue.	2-3 orduko Ibilaldia egin plano eta erreferentziekin.	3-4 orduko Ibilaldia egin; ingurunea ez duzue ezagutzen baina plano eta erreferentziek eramango dituzue.

HEZIKETA FISIKOA - DBH 4

1. ***Mendiko ibilaldia.** Mendira joan lagun batekin edo batzuekin, gailurrera heltzeko 2 ordu inguru eta beharrezko materiala erabiliz ziurtasuna bermatzeko.
2. ***Egoera fisikoa hobetzeko plana.** Udan egiteko emandako entrenamendu-plana zuri egokitu eta osatu ikasi duzuna aplikatuz, eta elikadura osasuntsu batekin.
3. **Pala partidak.** Herriko pilotalekura hurbildu zure lagunekin bi-biko partidak jokatzeko. Bikote gehiago balego, antolatu **txapelketa bat** puntuazio murrizten (12tara, 16tara). Gomazko pilota, behin berotuz gero egiten dituen bote eta efektuekin, ondo baino hobeto pasatuko duzue!
4. **Piragua/kanoak.** Gure kostaldean dagoen hondartza bat aukeratu eta lagunekin geratu piragua edo kanoan arraun ikasteko, banaka edo binaka dibertigarriago, ur-ekintzen eskola batean: Sopela, Laida, Deba, Zarautz, Donostian. Edozeinetan alokatuko dizute beharrezko materiala eta nola egin azalduko dizute. Erraza da. Topatu eta aurrera!
5. **Bolei hondartza.** Azken urteetan boleibola praktikatu eta ikasi duzue eta leku zoragarria da hondartzan praktikatzeko. Lagun kopuruaren arabera binaka, hirunaka...sei jokalariko taldeko estrategia desberdinak erabili dezakezue arerioari irabazteko, hori bai, kiroltasunez. Eta jende gehiago animatzen bada liga edo kopako txapelketa bat antolatu ahal duzue, denek jokatu ahal izateko.
6. **Akanpada.** Lagun taldekoekin prestatu kanping-dendak, motxilak, sukaldatzeko, jakiak janzkera egokiak eta gustuko parajera joan ingurunea ezagutzeko, bertako lagun berriak... baimenduta dagoen ingurune natural batean eta ura duena.

PROPOSAMEN GARATUAK – DBH 4

1.-*MENDIKO IBILALDIA. Mendira joan lagun batekin edo batzuekin, gailurrera heltzeko 2 ordu inguru eta beharrezko materiala erabiliz ziurtasuna bermatzeko


<p>Lagun batekin edo batzuekin adostu zein menditara joango zareten. Informazioa bildu nondik joan daitekeen jakiteko erreferentziekin. Mapa kartografiko lokal batean edo antzeko batean, aukeratu markatuta agertzen den ibilbide bat, iturriren batetik gertu pasatzen dena.</p>	
---	---

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Gailurrera heltzeko 2 ordu edo gutxiagotan egin daitekeen ibilbide bat aukeratu eta burutu.
- Lagunekin prestatu janzkera, janari, likido eta material egokia (botak, motxila, bastoiak, eskuko telefonoko aplikazioak, iparorratza...).

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
2-3 orduko ibilaldia egin; ingurunea ezagutzen duen batekin eta ibilbide errazenetik.	3-4 orduko ibilaldia egin ingurune ezezagun batetik eta ohiko bide batetik.	4-6 orduko ibilaldia egin; joateko eta itzultzeko ibilbide desberdinak aukeratu, beharrezko material, mapa eta erreferentziak hartuta.

2.-*EGOERA FISIKOA HOBETZEKO PLANA. Irailean, jubenetara pasako zara; honek esan nahi du nagusiagoekin jokatu duzula. Denboraldian zehar zure papera eraginkorra izatea nahi baduzu, egoera fisiko on batean aurre-denboraldira ailegatzea gakoa da.

<p>Entrenamendu gutxi egin duzue eta taldeko entrenatzaileak egoera fisiko hobetzeko plan orokor bat eman dizue udan egiteko; baita zer jan behar duzuen ere. Heziketa Fisikoan zuen egoera fisiko indibidualerako plan bat prestatu eta bete duzue aurten. Entrenatzaileak emandakoarekin zerikusia du? Elikadura orekatuari buruz ikasi ostean prestatzaileak emandako planarekin bat zatozte?</p>	
--	---

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Emandako entrenamenduari ukitu pertsonal bat ematea. Behar duzunari egokitu behar diozu plana; adibidez, erresistentzian ondo bazabiltza, agian indarra edo malgutasuna gehiago landu beharko zenuke orekatzeko.
- Elikadura plan pertsonalizatua jarraitzea. Esaterako, entrenamenduaren arabera aurretik eta ostean ze elikagai jatea komeni zaizun kontuan hartzea.

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Udan zehar egoera fisiko eta elikadura plana gutxi gorabehera jarraitzea.	Planifikatutako egoera fisiko eta elikadura plana betetzea.	Entrenatzaileak emandako egoera fisiko eta elikadura plana zure gaitasun eta egoera pertsonalera egokitzea eta betetzea.

Musika

*Aplikazio digitalei dagokionez, irakasleak bere ikastetxean indarrean dagoen plataformaren arabera (GSuite, Office 365 edo Moodle) egingo du aukeraketa.

MUSIKA – DBH1

PROPOSAMEN GARATUAK

1.-*INCREDIBOX

Una app donde podrás dirigir un coro de beatbox



Incredibox aplikazio musikala da, irudimena eta sormena garatzea bultzatzen duelako. Ahotsa, erritmoa eta patroiak edo loops lantzeko ere balio du.

Aplikazioa beat-box egiten duten animaziozko karaktere talde batez osatuta dago, estiloa erabakita dago eta aurrez sortutako soinu batzuk aplikazioa goiko

karakteretan dituen 4 kategorietatik edozein arrastatzen dira.

Konposizioa sortu ondoren, mp3 formatuan gorde dezakezu eta nahi duzun jendearekin partekatu eta, zure konposizioak boto nahikoak jasotzen baditu, [Incredibox-en Top 50ean](#) sartuko zara.

Web aplikazioak gehienez 7 "soinu" nahastu ditzake, eszenatokiko pertsonaia bakoitzeko bat.

7 pertsonaia erabil ditzakezu, edozein unetan soinua aldatu, banan-banan isildu eta banan-banan grabatu emaitza konposatu ahala.

Zera proposatzen dizugu:

- Egin konposizio bat eta partekatu zure lagunekin.

2.-*UKELELEA

Nivel 0.2: Partes y tipos de ukelele.



Ukelelea tresna aproposa da hondartzan, paseoan edo gauean barbakoa inguruan.

Ukelelea gitarra baino errazagoa da eta ahalegin handirik gabe kate instrumentuen munduan sartzeko aukera ematen du.

Ukelelearekin musika estilo guztiak jo ditzakezu eta lagundu hainbeste gustatzen zaizkizun abesti

horiei.

Zera proposatzen dizugu:

- Egunero praktikatu eta jarraitu [web orrialdean](#) agertzen diren urratsak maila hobereana lortzeko.

MUSIKA – DBH2

PROPOSAMEN GARATUAK

1.-*UKELELEA

Ukelelea tresna aproposa da hondartzan, pasean edo gauean barbakoan inguruan.



Ukelelea gitarra baino errazagoa da eta ahalegin handirik gabe kate instrumentuen munduan sartzeko aukera ematen du.

Ukelelearekin musika estilo guztiak jo ditzakezu eta lagundu hainbeste gustatzen zaizkizun abesti horiei.

Zera proposatzen dizugu:

- Egunero praktikatu eta jarraitu ukelelea jotzen eta mailak gainditzen.

2.-*NIRE FAMILIA ETA BESTE MUSIKA BATZUK



Musika bidelagun dugu bizitzan zehar, une onetan zein txarretan, okasio handietan eta egunez egun; baina gustuak aldatzen dira, eta estiloak ere bai. Dena den, badaude kanta batzuk, musika batzuk, gurekin batera izaten direnak betirako, oroitzapenak akordura ekarriz eta gure soinu-banda partikularra osatuz.

Udan, familia-bilera eta bisita ugari egoten dira. Senideekin elkartzeko unea da, eta haiekin gai desberdinei buruzko elkarrizketa lasaiak egitekoa, besteak beste, musikaz eta gure musika-gustuez. Zein musika gustatzen zaie gure gurasoei, aitona-amonei, lehengusu-lehengusinei, anai-arrebei...? Zer musika entzuten zuten gaztaroan? Zein ziren haien abeslari eta talderik faboritoenak? Zer musika entzun ohi dute?

Lana haxe da: familia-argazki digital bat egitea, non familiako kide bakoitzaren iraganeko eta gaur egungo estilo, talde eta kantari faboritoak agertuko baitira.

Horretarako:

- Elkarrizketa egingo diezu gertuko senideei eta gaztetan gustuko zuten musikaz galdetuko diezu.
- Erantzunen bat aukeratuko duzu.
- Youtuben taldea bilatuko duzu, edo kantaria edo kanta hautatua, eta poster birtualean erabiltzeko gordeko duzu.
- Poster bat ere egingo duzu, familia-argazkia erabilita, eta hautatutako kantaren testua eta bideoa ere bai.
- Familien kide guztien kanta faboritoen artean botorik gehien lortzen duen kantaren proba-saioak egin eta taldean interpretatu.

MUSIKA – DBH 3

PROPOSAMEN GARATUAK

1-*NIRE BIOGRAFIA MUSIKALA



Norbaitekin topo egiten dugunean gaietako bat izan ohi da gure musika zaletasunak eta gure biografia musikala kontatzea, hau da, guretzat garrantzitsuak izan diren kantuak komentatzea gure bizitzan mugarri izan baitira.

Zera proposatzen dizugu:

Zure biografia musikala sortuko duzu. Horretarako zure bizitzan garrantzitsuak izan diren 5 edo 6 abesti aukeratu behar dituzu. Abesti guztiekin, sortu aurkezpen bat eta bertan abesti bakoitza aukeratzeko arrazoa azaldu. Erabili [Youtube](#) abestiak bilatzeko eta [Bandlab](#) biografia konfiguratzeko.

[Bandlab](#)-ekin biografia irudikatzen duen musika pieza bakarra sor dezakezu, abesti bakoitza aukeratzeko arrazoa azalduz. ([Youtube](#) / [Bandlab](#))

Sortu biografiaren aurkezpen digitala [Genially](#) erabiliz



Aurkezpenak ez du gehiegi iraun behar, 10 minutu gehienez, hurrenkera kronologikoa jarraitu beharko du eta zure biografia musikarako aukeratutako abestien egileak eta interpreteak aipatu beharko dituzu.

2.-*KANTATU UKELELEAREKIN

Ukelelea tresna aproposa da hondartzan, paseoan edo gauean barbakoa inguruan.

Ukelelea gitarra baino errazagoa da eta ahalegin handirik gabe musikatresnen munduan sartzeko aukera ematen du. Ukelelearekin musika estilo guztiak jo ditzakezu eta lagundu hainbeste gustatzen zaizkizun abesti horiei.

Abesti asko daukazu abesten eta jotzen jarraitzeko:



MUSIKA – DBH 4


PROPOSAMEN GARATUAK

1.-*SAN JUAN GAUEKO SOINU BANDA


Proposamena irrati iragarki bat egitea da, lagunei San Juan gaua ospatzera animatzeko Horretarako soinu banda sortuko duzu iragarkiaren oinarri gisa.

Iragarkia sortzeko, musika zatiak, soinu efektuak eta soinu misteriotsuen grabaketak ere aukeratu behar dituzu haiekin bat egiteko eta, beraz, hiru eta bost minutuko iraupena duen soinu banda konposatu behar da, gutxienez sei musika zati barne.

Jardueraren errendimendua errazteko [Spooky Soundtrack](#) izeneko webgune zoragarria dugu, musika misteriotsuekin lotutako musika zati ugari biltzen dituena



Hurrengo orrialdeetan abestiaren gomendioak ere lagun dezake:



[Cadena dial](#)



[Los 40](#)

Jarduera garatzeko...

- Entzun beldurrezko eta ahots efektu musikal desberdinak [Spooky Soundtrack](#) webgunetik edo *You Tube*-ko beste bideo batzuetatik, gehien gustatzen zaizunen aukeraketa egiteko. Grabazioak mugikorrarekin edo online ere egin ditzakezu.
- Hautatu musika eta deskargatu mp3 formatuan.
- Moztu zatiak eta egin hautatutako zatien konposizioa. Horretarako, online audio edizio zerbitzua eskaintzen duten [123Apps](#) tresnak erabili.
- Musika nahasketa eginda, deskargatu mp3 formatuan eta zure lagunei bidali.

Teknologia


*Aplikazio digitalei dagokionez, irakasleak bere ikastetxean indarrean dagoen plataformaren arabera (GSuite, Office 365 edo Moodle) egingo du aukeraketa.

TEKNOLOGIA - DBH 1

1. **Prozesu teknologikoaren faseak erreparatu** ondorengo joko [honen](#) bitartez. Azalpena: prozesu teknologikoan zehar hainbat jarduera garatzen dugu. Jarduera horiek multzokatu beharko dituzu prozesu teknologikoaren fasearen arabera.
2. ***Erremintak**: ikasturte honetan teknologia gelan hainbat erreminta ikusi eta erabiltzeko aukera izan dugu. Zerrendatu erremintak proiektua garatzeko eragiketen arabera. Izenak eta erabilpena gogoratzen laguntzeko hemen daukazu hainbat joku:
 - i. [Asmatu](#) zein den aipatzen den erreminta. [Hemen](#) ere bai
 - ii. Erremintek betetzen duten funtzioaren arabera [multzokatu](#).
3. **Jokoa**. Egitura sendoak nola egin: triangulazioa. Helbide honetan zubiak eraikitzeko jokua duzu. Erronka formatua du eta zailtasuna handiagotzen joango da. Hauek gainditzeko egitura triangeluarrak sortu beharko dituzu horretarako.
4. Ondoko jarduera [honetan](#) adierazitako esfortzua dagokion irudiarekin erlazionatu behar dituzu.
5. Jarduera honetan pieza bat [perspektiban](#) marraztuta ikus dezakezu. Saia zaitetz piezaren bista nagusiak marrazten. Horretarako orri kuadrikulatu batez balia zaitetz. Bukatzean irudiaren gainean klikatu.
6. **Engranajeak marrazten**. Ondorengo webgune [honetan](#) engranajeak marraztea lagungarria egingo zaizu. Zirkunfentziak marraztu eta berak engranajeen bihurtuko du! Ondorengo adibide [honetan](#) zein gurpil emango ditu birak azkarrago? Zein zentzutan emango dituzte birak? Arrazoitu.
7. **Ohmen legea**. Multimetroaren erabilera. Bi modutan landuko dugu gaia:
 - a. [Zirkuituko sorgailuaren](#) Volt balioa aldatzen joango gara eta amperometroak eta voltmetroak adierazten dutena jasoko dugu.
 - b. [Zirkuituko sorgailuaren](#) tentsioa eta erresistentizaren balioa aldatzen joango gara eta korrante intentsitatearen balioa jasoko dugu.
8. ***Euste puntu bat emaidazue eta mundua mugituko dut!** Nola erraztu gure lana? Nola lortu abantail mekanikoa?. Ondorengo [webgunean](#) hiru aukera interesgarri eskeintzen dira lanerako.
9. **Programazioaren oinarriak** erreparatuko ditugu oraingoan. Egin dezagun joku bat. [Hemen](#) duzu ikastaro bat behar dituzun azalpenekin.

PROPOSAMEN GARATUAK - DBH 1

1.-*ERREMINTAK


<p>Teknologia gelan egiten dugun lan garrantzitsu bat arazoei soluzioak bilatzea da. Horretarako, proiektuak edo erronka ezberdinak garatzen ditugu eta, normalean, objektuak edo makinak eraiki.</p> <p>Material ezberdinekin egiten dugu lan eta horretarako gelan ditugun erremintak ezagutu behar ditugu. Baita hauek maneiatzeko segurtasun arauak.</p>	 <p>1. irudia pxfuel.com</p>
--	---

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Erreminten inguruan izan ditzakezun zalantzak argitzeko jarduera bat(zuk) garatzea. Ideia litzateke erreminta guztiak ezagunak izatea, eta baita horien segurtasun arauak zeintzuk diren argi izatea. Hauek dira planteatutako jarduerak:

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
<p>Ondorengo helbidean azaltzen diren jarduerak burutu. Ezagutzen ez dituzun erreminten irudiak bilatu eta erabileraren inguruko informazioa dokumentu batean erantsi.</p>	<p>Dokumentu hau irakurri. Burumapak egiteko erreminta digital bat aukeratu eta klasean erabili dituzun erreminten sailkapen bat egin.</p>	<p>Erreminten erabileraren arabera sailkapen bat egin beharko dugu. Infografia digital bat sortu garatutako informazioa transmititzeko.</p>

2.-*EUSTE-PUNTU BAT EMAIDAZUE ETA MUNDUA MUGITUKO DUT!

<p>Teknologiak aurrera egiten du eta horren arabera gure lana gero eta errazagoa bihurtzen ari da esfortzu fisikoarekiko dagokionean behintzat.</p> <p>Palankaren legea oso erabilia da gure eguneroko bizitzan.</p>	 <p>2 irudia commons.wikimedia.org</p>
--	---

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Gure lana errazagoa egin nahi dugu. Zamak jasotzen lagunduko diguten sistema ezberdinak ditugu inguruan. Eskatzen duguna da:


INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
<p>Marraz ezazu eskematikoki ikasi dituzun palanka mota ezberdinak. Indarra-magnitudeen(pisua/zama) arteko erlazioa adierazi.</p>	<p>Aztertu zama bat bertikalean igotzeko erabil ditzazkegun operadore mekanikoak. Bozeto bat marraztu azalpena eman.</p>	<p>Litro bateko esne kutxa bat altxatzeko sistema diseinatu eta eraiki etxean dituzun materialekin. Bideo batean azalpena eman.</p>

TEKNOLOGIA - DBH 2

1. **Oinarrizko zirkuitu elektrikoak**: webgune honetan oinarrizko zirkuitu elektrikoen funtzionamendua hobeto ulertu ahal izango dugu. Bertan hainbat aukera izango duzu. Aukeratzen den bakoitzarentzat zirkuituaren irudia eta eskema elektrikoa ikusi ahal izango duzu.
2. **Webgune honetan** ariketa erraz bat planteatzen dute: **egitura bat muntatzea**, paperari forma triangeluarra emanaz.
 - i. Saia zaitetz horrelako egitura bat eraikitzen.
 - ii. Probatu profila aldatzen. Zeinek jasango du esfortzu handiagoa? Arrazoitu dezakezu?
3. ***Magia ala Tensegrity?** Egiturek zamak jasaten dituzte eta honek egiten du elementu bakun bakoitzak esfortzuak jasatea. Ondorengo jardueran gai hau aztertzeko aukera bat ikusiko dugu.
4. **Mugimendua makina sinpleekin**: ondorengo baliabide honekin gurpilen (poleen) arteko mugimendu transmisioa hobeto ulertu ahal izango dugu. Egoera ezberdinak aplikatu eta ondorioak atera. Nola lortuko dugu abiadura erreduzitzea? eta biderkatzea?
5. Baditugu ere mugimendu eraldaketa sortzen duten mekanismoak. Adibidez, Maltako gurutzua mekanismoa. Joan [wikipediara](#) eta aztertu osagaiak eta funtzionamendua. Erabiltzen al da horrelako mekanismorik zure inguruan?
6. **Rube Goldberg makina**. Mekanismoekin jarraituz, zergatik ez egin oso dibertigarria izan daiteken zerbait! Oraingo proposamena [Rube Goldberg](#) makina bat [prestatzea](#) litzateke. Jakingo al zenuke zein den makina honen funtzioa azaltzen? Animatu eta grabatu egindakoa bideo batean!
7. **Imajina dezakezu elektrizitaterik gabe bitzitzea gaur egun?** Irakurri [ondorengo](#) testua. Zertan uste duzu gehien nabarituko zenuela elektrizitaterik egongo bazina denbora batean? Konponbiderik planteatuko al zenuke?
8. ***Jolastea!** Oraingoan joku bat guk geuk sortzeko proposamenarekin gatoz: [PONG oinarrizko](#) jokua. Tutorial honi jarraituz, pausuz pausu ikusi ahal izango dugu nola egin honelako jokoa.

PROPOSAMEN GARATUAK - DBH 2

1.- *MAGIA ALA TENSEGRITY?


<p>Patinetearen ganean jartzean, kulunkan aritzean,... hau da, egitura batean zama bat ezartzen dugunean, egitura horren elementu bakunak esfortzu bat jasatea behartzen ari gara.</p> <p>Esfortzu horiek mota ezberdinetakoak dira: estatikoak, dinamikoak,... eta egitura bakun horien formek edo profil motek garrantzia dute.</p> <p>Badago tensegrity egitura mota bat airean mantentzen dela emanten duena...</p>	 <p style="text-align: center;">3. irudia. Egilea: Danski14</p>
---	--

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Egitura baten osagaiak esfortzu ezberdinak jasan ditzakete. Esfortzu horiek jasatea ezinbestekoa da pieza horrek bete behar duen funtzioa dela eta.
- Gai honen inguruan lantzen diren kontzeptuak finkatzeko jarduera hauek planteatzen digutu:

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Zerrendatu objektuek jasan ditzaketen esfortzu motak.	Ondorengo baliabidean erlazionatu objektu bakoitzak jasan ditzakeen esfortzua(k).	Dokumentatu nondik datorren tensegrity hitza eta, zer adierazten duen; azaldu ere honelako egitura baten osagai bakoitzak betetzen duen funtzioa. Bukatzeko, eraiki.

2.- *JOLASTEA!


<p>Uda honetan zehar asko jolasteko beharra egongo da. Baina zer iruditzen jolaseaz gain ikasteko aprobetxatzen badugu?</p> <p>Bideo joko bat eginez programazioaren oinarriak lantzeko aukera oso ona daukagu</p>	 <p style="text-align: center;">4. irudia. Egilea: Wizardist</p>
--	---

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Bideojokuekin arituko gara oraingoan. Honetarako, eta programazioaren hastapenak lantzeko, PONG jokua aztertuko dugu Scratch3.0 bitartez:


INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
Dokumentu honetako azalpenak irakurri. Ulertzen ez dituzun kontzeptuak jaso eta horien inguruko informazioa bildu.	Tutorialari jarraituz bideo jokua gauzatu SCRATCH-en. Bloke bakoitzaren funtzioari buruzko iruzkinak adierazi eta konpartitu.	Jokuari hobekuntza proposamenak gehitu eta gauzatu bloke bakoitzaren funtzioa oharren bitartez adieraziz.

TEKNOLOGIA - DBH 3

1. **Folio bakar bat erabiliz...**Egiturek jasan dezaketen konpresio esfortzua nola hobetu dezakegun saiatuko gara ulertzen ondorengo jarduera [honen](#) arabera. Erronka izango da: zenbat zama mantendu dezakegu lurretik altuera batera (zentimetro bat edo bi) folio bakarra erabilia? Zein egitura erabiliko dugu horretarako?
2. ***Elektrizitatea.** Zer eragina du elektrizitateak gure bizitzan? Inguratuta gaude osagai elektrikoez, zirkuitu elektrikoa,... Azter dezagun gaia.
3. **Domo geodesiko bat.** Egiturak lantzeko proposamena: domo geodesiko bat eraiki. Oraingoan egiturak sendoagoak izateko egitura triangeluarrak erabiliko ditugu; paperezko egitura edo beste materiala aukeratu ahal izango da. Profilaren arabera konprobatu esfortzua eta jasateko gaitasuna aztertu. Hemen eskuragarri daude. Azalpenak. Berrerabili dezakegun materiala izanda daiteke: fideoak, paper txurroak, gominolak loturetarako...
4. Teknologia gelan ditugun erreminten inguruko hausnarketa egitea proposatzen dizugu oraingoan. Aspaldiko [dokumentu honetan](#) ohiko erreminta zerrenda duzu; erreminta bakoitzaren erabileraren segurtasun aholkuak ere aipatzen dira. Zein erreminta gehituko zenuke? Zein erreminta bihurtu da ohikoa gaur egun eta ez da dokumentu honetan azaltzen?
5. Erronka berezia: **munduko motore elektriko sinpleena** erakitzea. Honetarako, korrante zuzeneko motorren funtzionamendua aztertuko dugu. Prozesua: osagaiak aztertu, [magnetismoa](#)/elektromagnetismoa kontzeptua eta [simulazioa](#). Ikusi [bideoa](#). [Eraikitzen](#) saiatuko gara? [Ulertzen](#) dugu funtzionamendua?
6. ***Bihotz taupadak.** Oraingoan robotikaren inguruan egingo dugu proposamena: edozein egoerari erantzun ahal izateko simulazioen bitartez egingo dugu. Microbit plaka simulatzeko Makecodeko aplikazioa erabiliko dugu. Oinarrizko adibide batekin hasiko gara: [bihotz taupadak](#) simulatuko ditugu.
7. **Diseinatzen.** Modu erraz batean piezak [diseinatuko](#) ditugu. Eta ondoren, diseinatutako pieza horien hiru bista nagusiak marraztuko ditugu aplikazioan bertan.

PROPOSAMEN GARATUAK - DBH 3

1.- *ELEKTRIZITATEA


<p>Argi dago gure bizimodua asko hobetu dela azken urteetan. Horretan eragin handia dauka elektrizitateak eta honen erabilera.</p> <p>Baina beste edozein gaitan bezala, ez zaigu komeni erabiltzaile soilak izatea. Sortzaileak ere izan behar dugu eta horretarako, jakin behar dugu nola funtzionatzen duten gure inguruko gailuek. Nola osatzen diren zirkuitu elektrikoak.</p>	 <p>5. irudia. Egilea: Biganski.</p>
---	--

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Zirkuitu elektrikoaren osagaiak aztertu behar ditugu. Bakoitzak betetzen duen funtzioa argi eduki. Era berean, oinarraizko magnitudeak nola neurtu ditzakezun barneratu behar dugu. Horetarako lan bat garatzea planteatzen dugu.
- Zure aukera zein izan den jakiteko, polita izango litzateke bideo batean azaltzea:

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
<p>Ondoko jarduerak burutu gaia lantzeko: Osagai elektrikoak multzokatu. Osagaiak aukeratu. Osagai elektrikoak. Oinarritzko zirkuitu elektriko baten osagaiak. Ohmen legea. Potentzia elektrikoak.</p>	<p>Simulazio programa hau erabilia konprobatu Ohmen legea. Osatu dokumentu bat erresistentzia eta volt kopurua aldatuz eta konproba ezazu grafika baten bitartez Ohmen legea betetzen dela.</p>	<p>Laborategi birtual honen bitartez zirkuitu elektriko bat muntatu. Gutxienez bi hargailu izan beharko ditu. Neurgailuak erabili eta demostratu lortutako balioekin Ohmen legea eta Kirchhoffen legeak betetzen direla.</p>

2.- *BIHOTZ TAUPADAK

<p>Robotika gaia gero eta gehiago sartzen ari da gure munduan. Hasieran, enpresetako gauza izango zela zirudien baina <i>gauzen interneta</i> hainbeste garatzen ari den une honetan, gure etxeetan ere robotika eta kontrola sartu egin da.</p>	 <p>6. irudia. Egilea: propioa.</p>
--	--

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Robotika simulaziozko programa bat erabili edo garatuko dugu. Serbo-motor baten kontrola microbit plakare bitartez aztertuko dugu:


INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
<p>Deskribatu dokumentu baten serbomotor baten osagaiak. Ikusi zein bloke erabiliko duzun honen kontrolerako.</p>	<p>Azaldu zein funtzio betetzen duten serbomotorraren osagaiak eta programa hau erabili bere kontrola egiteko.</p>	<p>Garatu programa non serbomotorraren posizioa potentziometro baten bitartez kontrolatuko den.</p>

TEKNOLOGIA – DBH 4

1. **Kreatibitatea** landuko dugu marrazketako gaien kasu honetan. Pieza bat asmatuko dugu eta [aplikazio](#) honetan marraztuko dugu; ondoren, bere hiru bista nagusiak. Prozesua alderantziz egiteko aukera emango digu ere. [Hemen](#) topa dezakezu baliabidea. Hona [hemen](#) adibide bat.
2. **Nola funtzionatzen dute ate logikoak?** Jarduera [hauetan](#) zalantza guztiak argituko dituzu: AND, OR, NAND, NOR, NOT eta XOR. Orain [diseina](#) ezazu zirukitu ate logikoak erabiliz, non, bonbila bat piztuko den baldin eta dauzkagun bi pultadoreetatik bakarra sakatzen badugu. Egi taulari begiratu jakiteko asmatu duzun!
3. **Zure gelako instalazio elektrikoa marraztuko dugu?** Aurkezpen [honetan](#) aukera ezberdinak aurkezten dira. Egokitu zure egoerara eta marraztu ahal izango duzu.
4. ***Pandemia batean: programazioa.** Oraingoan simulazio-joku baten azterketa egitea: [Epidemia baten hedapenaren simulazioa](#). Erabilitako kodearen azterketa egitea proposatzen dugu. Horretarako, simulazioaren birnahastea egin eta, behin zure jabetzako kopia lortu duzula, bloke bakoitzean oharra erantsi blokeak betetzen duen funtzioa adieraziz.
5. ***Pandemia batean: 3D diseinua.** 3D diseinuan betaurreko batzuk nola diseinatzen diren ikus dezakegu [hemen](#). Jarduera proposamena: koronabirusatik babesteko maskarilak ordu askotan eramatean belarrietan mina egiten du; Hori ekiditeko [pieza bat](#) diseinatzea.
6. **Serbo motore baten kontrola** ikusiko dugu bi aplikazioren bitartez. Bietan kode bitartez egindako programa aztertuko dugu. Zein iruditzen zaizu errazagoa. Arrazoiatu.
 - i. Tinkercad: serbo-motorraren [kontrola](#).
 - ii. Makecode: [serbo-motorra](#).
7. Jarduera hau zure **etxeko faktura elektrikoa ulertzeko** izango da. Baita hausnarketa txiki bat egiteko eta gehien kontsumitzen duten gailuak zeintzuk diren jabetzeko. Azken galdera izango da: zer egin dezaket nik mundu jasangarriago batean bizitzeko? Zer dago nire esku? Guzti honetarako bi irakurketa proposatzen dizkizuegu:
 - i. [Elektrizitate-faktura xehetasun osoz irakurtzearen garrantzia](#).
 - ii. [Gailu elektrikoaren kontsumoa kontrolatzeko trikimailuak](#)

PROPOSAMEN GARATUAK –DBH 4

1.- *PANDEMIA BATEAN: PROGRAMAZIOA!


<p>Koronabirusak gure bizitza hankaz gora jarri du. Garai zaila bizitza tokatu zaigu.</p> <p>Zer egin dezakegu honen aurrean?</p> <p>Alde batetik, erantzukizunez jokatu; eta bestetik, gertatzen dena ondo ulertzen saiatu. Higienea eta distantziak mantentzearen garrantziaz jabetu.</p>	 <p>7. irudia.</p>
---	---

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Distantziak mantentzeak nola eragiten duen aztertuko dugu Scratch3.0 aplikazio [honen](#) bitartez horregatik, planteatzen dugun erronka da:

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
<p>Aplikazioan erabilitako blokeak aztertu eta dokumentu batean jaso.</p>	<p>Aplikazioa birnahastu eta blokeen edizioatalean oharrak gehitu bloke-talde bakoitzak betetzenduen funtzioa adieraziz. Etxean gelditzen %en blokea aztertu.</p>	<p>Aipatutako aplikazioan oinarrituta, sortu zure simulazioa propioa eta gehitu behar diren osagaiak pertsonen arteko kontaktua txikiagoa izan dadin.</p>

2.- *PANDEMIA BATEAN: DISEINUA

<p>Koronabirusak gure bizitza hankaz gora jarri du. Garai zaila bizitza tokatu zaigu.</p> <p>Zer egin dezakegu honen aurrean?</p> <p>Alde batetik, erantzukizunez jokatu; eta bestetik, gertatzen dena ondo ulertzen saiatu. Higienea eta distantziak mantentzearen garrantziaz jabetu.</p>	 <p>8. irudia. Iturria</p>
---	--

Erronka honetan, zera proposatzen dizugu:

- Inguruko gauzeekin ahalik eta kontaktu txikiena edukitzen saiatu behar gara. Horretarako, 3D diseinurako programak erabiliko ditugu. Erronka: eraiki dezagun gure pieza propioa!

INDARTZEA	MANTENTZEA	SAKONTZEA
<p>Plataforma ezberdinak daude 3D diseinuak deskargatzeko dituztenak. Egin bilaketa bat eta zure beharretara hobekien egokitzen den pieza deskargatu eta inprimatzeko prestatu..</p>	<p>Diseinatu pieza bat, akotatu eta 3D programa baten bitartez lortu STL fitxategia.</p>	<p>Piezen diseinu parametrikoa landuko dugu. Horretarako, Freecad edo Onshape bezalako programak erabili. Ondoren pieza plataforma batera igo besteentzat eskuragarri uzteko.</p>

ERANSKINAK

Atal honek eranskin hauek biltzen ditu:

Eranskin1. Uda honetan, etxean nahiz etxetik kanpo ere euskara erabiltzeko gomendioak, aukerak eta baliabideak.

Eranskin2. Ikasleen autorregulazioa sustatu eta tutoreek kontuan hartu beharko lituzketen zenbait alderdi eta jarduera.

ETXEAN ETA ETXETIK KANPO

UDAN ERE, EUSKARAZ

Uda honetan, etxe giroan eta etxetik kanpo ere euskara erabiltzeko gomendioak, aukerak eta baliabideak

0.- Sarrera

Eskola presentzialak eten zirenetik, ikasle askok, batez ere familia ez-euskaldunen seme-alabek, euskararekin zeukaten lotura nagusia galdu dute, ikastetxean bertan ematen den ikaskide eta irakasleekiko ahozko elkarreragina, alegia. Udako oporraldian ere, euskaraz garatzen ziren hainbat jarduera (udalekuak, ludoteka irekiak...) ez omen dira antolatuko. Horrek euskararekiko urruntzea areagotu egingo du ikasle askorengan, eta hurrengo ikasturtearen hasiera nekezagoa bihurtu.

Horregatik, oso garrantzitsua da gure ikasleek, ahal den neurrian, euskara entzun eta erabiltzeko askotariko aukerak izatea. Jarraian zerrendatzen ditugu helburu hori lortzeko gomendio batzuk, eta zenbait herritan martxan jarri diren ekimenak eta baliabideak.

1. Gomendioak

Goian esan bezala, oso inportantea da ikasleek euskararekin lotura izaten segitzea, eta euskara baliatzea komunikatzeko. Atal honek familiei eta ikasle-irakasleei begirako gomendioak biltzen ditu.

Gomendio orokorrak, familia guztiei begira

1. Funtsezkoa da ikasleen gurasoek ere argi ikustea zeinen garrantzitsua den seme-alabek euskararekiko harremanari ahalik eta gehien eustea eta, batzuetan zaila dirudien arren, bideak egon badaudela.
2. Familiek ahalegina egin behar dute ahozko komunikazioa areagotzeko, familia-kideen artean patxadaz hitz egiteko denbora hartu, momentuak bilatu. Euskaraz? Noski: “ahal *denean*, *dena*; eta ezin *denean*, *ahal dena*”. Familia askotan badago euskaraz dakien kideren bat. Familiako euskaldunen arteko

ahozko elkarreragina euskaraz izatea inoiz baino garrantzitsuagoa da orain. Izan guraso, neba-arreba, aitite-amona... euskaraz dakienarekin, euskaraz aritu!

3. Etxean egon daiteke pertsona helduren bat (gurasoetako bat esaterako) euskaraz, maila apalean bada ere, badakiena baina segurtasuna ez duena edozein egoeratan ikaslearekin euskaraz aritzeko. Kasu hauetan euskaraz aritzeko 'une goxoak' eta 'seguruak' bilatu daitezke:

- Ipuina kontatzeko (edo beste testu batzuk irakurtzeko) unea finkatzea. Halakoetan lagungarri izan daiteke helduak ipuina, aldez aurretik, bizpahiru aldiz irakurtzea, irakurraldian seguruago sentitzeko eta egoeraz disfrutatu ahal izateko.
- Elkarrekin abestea gustuko euskal kantak, edota euskarazko kanta 'ez ezagunen' bila jartzea Interneten (Badok.eus-en, Youtuben, Spotify-n edo Bandcamp musika plataforman). Txatxangorria.eus webgunean karaokea egiteko ehundaka abesti ditugu.
- Elkarrekin ikustea --eta komentatzea-- tesesail, film edo dokumentalen bat. 3. atalean dituzue hainbat esteka.
- Familian euskaraz jolastea: mahai jokoren batean edota mugimendu jolasen baten, non normalean hitz, esaldi eta hizkuntza formula jakin batzuk baliatzen diren. 3. atalean aukera horietako batzuk zerrendatzen dira.

4. Garrantzitsua da ikasleek helduon konplizitatea ikus eta sentitu dezaten proposatzen diegun erronkan: haizeak alde jotzen ez duenean ere euskaraz aritzeko ahalegina egitea. Baina, ikasleaz gain, etxean ez badago euskaraz dakien inor? Zer egin dezakegu?

- Euskaraz aritzeko boluntario sareekin harremanetan jarri. Udalerri batzuetan, Udalak edota herri eragileek ekimen bereziak antolatu dituzte: ordenadore bidez boluntario euskaldunekin hitz egiteko sareak, ludoteka eta liburutegi birtualak... Inportantea da familiek antolatu diren ekimen horiek ezagutu eta baliatzea. Dokumentu honen 2. atalean (Ekimenak) garatzen da ideia hau.
- Euskarazko kultur produktuak (ikus entzunezkoak, literatura) kontsumitzeko aukera baliatu. Dokumentu honen 3. atalean dauden aukera anitzetako batzuk zerrendatzen dira.
- Udan ume eta gazteentzat antolatu daitezkeen euskarazko jardueretan parte hartu. Badakigu oporraldi honetan ezinezkoa izango dela betiko udalekuak eta bestelako euskarazko jarduerak antolatzea. Baina erakunde eta eragile askok jarduera alternatiboak planifikatzen ari direla iragarri dute, eta, hortaz, familiak adi egon behar du, informazioa eskuratu eta bultzatu seme-alabek horietan parte hartzea.

Gomendioak irakasleei eta ikasleei begira, eskola ez-prezentzialetan eta udako lanetan euskara baliatzeko

(Jatorria: [EIBZ](#) moldatua)

Bizi dugun egoera dela eta ikasleek jasotzen eta jasoko duten euskarazko ahozko inputa gutxitu egin da. Hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari begira, online irakaskuntzan nahiz udako jardueretan, egoera honek eskatzen du beste jarduera mota batzuk proposatzea eta jarduera horiek ikasleentzat lan gehigarria ez izatea, hau da, jarduera mota horiek beste batzuen ordez proposatzea.

Bi lehentasun nagusi azpimarratu daitezke:

- Ikasleen euskarazko inputa ziurtatzea
- Ikasleei euskarazko outputa eskatzea

Hala, ikasleek euskarazko input aberatsa eta askotarikoa jaso dezaten, euskarazko ikus-entzunezkoak tartean dituzten jardueri lehentasuna eman behar zaie, eta zenbaitetan ikasleei aukera eman input horiek aukeratzeko irakasleak emandako zerrenda baten barruan, esaterako.

Era berean, ikasleei euskarazko outputa eskatu behar zaie, hau da, ekoizpenak. Ikasleek hizkuntza maila mantendu eta elikatzeko, funtsezkoa da ikuspegi komunikatiboa oinarri hartzea eta ahozko eta idatzizko testuak sortzea. Hartara, ahozkoari begira, audio- edo bideo- grabazioak egin ditzakete banaka, binaka edota elkarrekintzan helburu komunikatibo askori erantzuna emanez. Adibidez:

- Irakasleari haien etxea deskribatu
- Ikaskideei gertatu zaizkien anekdotak kontatu
- Ikusitako film edo dokumental baten, irakurri duten liburu edo albiste baten laburpena azaldu.
- Irakasleari eta ikaskideei arazo bati buruzko iritzia eman
- Gurasoei ahoz gorako irakurketak egin
- Ikaskideei eguneroko errutinak kontatu
- Talde elkarriketak egin irakurritako liburuen gainean
- Iritzia adierazi gai bati buruz...

Ataza komunikatiboetan, interakzioa sustatzea funtsezkoa da, hala 4 edo 5 ikasle elkartu daitezke irakaslearen gidaritzapenaren eta gai bati buruz hitz egiteko bideo-deiak egin. Irakasleak gaia jarri eta elkarrekintzak bideratuko ditu partaide guztiek hitz egiteko aukera izan dezaten. Adibidez, LHko 1. mailan errutinen inguruan hitz egin dezakete eta DBHko 4. mailan, berriz, gai zehatzen bat proposatu dakieke euren interesen ingurukoa

edo gai kurrikular bat, esate baterako, historiakoa eta 5 ikasle eta bi irakasle aritu daitezke (historiakoa eta euskarakoa)

Bukatzeko, ahozkoa bideratzeko eta ebaluatzeko prozedurak zehaztu eta baliabidek eman behar zaizkie ikasleei, zuzentasunarekin gehiegi tematu gabe, ahozkoaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Online eskoletan nahiz udan ere, irakasleek proposatu ditzaketen indartzeko, mantentzeko nahiz sakontzeko jardueretan input aberatsa eta ikasleek ekoitziko dituzten ahozko testuen garrantzia azpimarratu behar dugu. Ikuspegi komunikatiboari erantzuna emanez, ikasleek askotariko testuak entzun, irakurri behar dituzte eta hroei buruz hitz egin eta idatzi. Egiteko horiek funtsezkoak dira hizkuntzan aurrera egingo badute.

2. Ekimenak

Jarraian agertzen diren ekimenak adibideak dira eta gehienak apiril aldera antolatu ziren. Udan, ordea, ezin jakin aktibo mantenduko diren ala ez. Tokian tokiko erakundeek (udala, mintzalagun elkarteek, aisialdirako taldeek...) zer ekimen abiaraziko duten galdetu behar dute familiek.

- Bilbo: boluntario euskaldunen sareak, auzoka antolaturik, familia erdaldunen seme-alabekin euskaraz aritzeko .
 - [Uribarri auzoko ekimena](#)
 - [Deustukoek Ikastetxeetara bidalitako azalpen-mezua.](#)
- Donostia: haurrentzako euskaraz etxerako lanen laguntza eta mintzapraktika.
 - [Informazioa](#)
 - Axular ikastetxeak familientzat prestatu duen [galdetegia](#). Lehen Hezkuntzako Ikasleei laguntzeko, Donostian: 680 671 818 telefonoa
- Bergara:
 - “Umeak etxean” Programa. [Aisialdirako baliabideak](#)
 - Euskara [errefortzuen](#) programa.
 - [“Txapa irratia”](#) umeentzako saio bereziak txertatu dira (astean behin)
- Gernika-Lumo: haur eta gazteei etxealdian euskaraz mintzatzeko aukera ematen zaie.

Mintzapraktikak online

- [Mintzapraktikak etxealdian LHko ikasleentzat](#) (Ebeta)
- [MintazlagunON](#) Sarea (Euskaltzaleen Topagunea).

Etixerako lanekin laguntzeko online (Aukera hau, agian, udan ez da erabilgarria izango)

- [Ikasbiklik](#) (EHIGE). Etixerako lanekin laguntzeko aplikazioa.

3.Baliabideak: euskarazko ikus-entzunezkoak eta jolasak

- EITB nahieran: <https://www.eitb.tv/eu/>
 - [Bitartean, etxetik ikasten](#) saioak: Hezkuntza sailak ETB3rekin batera sortu duen telesaioa, etxealdian irakaskuntza prozesuan laguntzeko. Saioak ekainaren 19an bukatuko badidra ere, grabazioak webgunean bertan eskuratu daitezke. Horrez gain, *Erronkak* izeneko saioa garatuko da ikasleentzat udan zehar.
 - [Film luzeak](#), 50 pelikula baino gehiago ‘Haurrentzako Filmak’ (10 bat)
 - ‘Haurrak’ atalean haurrentzako programa ugari: *3Ene Kantak, 3txulo, Alza Porru!, Barrebusa, Don Don Kilikon...*
 - ‘Telesailak’ atalean: *Aitaren Etxea, Balbemendi, Benta Berri, Bi eta Bat, Brinkola, DBH,, Eskamak Knetzen, Goazen, Goenkale, Hasiberriak, Jaun eta Jabe, Lars Zonbia, Martin, Mugaldekoak...*
 - ‘Umorea’ atalean: *Arregitarrak, Batek Daki, Bodologuak, Finlandia, Funtzioa, Kontuz Atsuak, Wazemank...*
 - Ipuinak:
 - Ipuinak
 - *Zuhaitz etxeko istorioak*, Haur literatura edo irakurzaletasunarekin lotutako marrazki bizidunak
- EITB3
 - <https://www.eitb.eus/eu/hiru3/>. Marrazki bizidunak, bideoak eta jolasak euskaraz, adinaren arabera sailkatuta.
- Ikusi eta ikasi

- <https://www.ikusietaikasi.eus/> Familian euskaraz gozatzeko tailer eta ikuskizunen zirkuitua: ipuin kontalariak, dantza saiotxoak, magia eta yoga tailerrak...
- ARGIA multimedia
 - Film laburrak: <https://www.argia.eus/multimedia/film-laburrak>
 - Antzezlanak: <https://www.argia.eus/multimedia/antzezlanak>
 - Dokumentalak: <https://www.argia.eus/multimedia/dokumentalak>
 - Erreportajeak: <https://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak>
 - Elkarrizketak: <https://www.argia.eus/multimedia/elkarrizketak>
 - Solasaldiak: <https://www.argia.eus/multimedia/solasaldiak>
- Beste iturri batzuk
 - [Euskarazko Zinema Etxean Ikusgai](#).(Tinko elkartea)
 - Euskal Encondings webgunea:
 - [Filmak](#)
 - [Telesailak](#)
 - [Iparra.eus](#), [hainbat](#) film zerrendatuta
 - [Webtelesailak](#): '[Gutuberrak](#)', [Otsoen lurraldea](#), [Tantaka](#), [Pikuak](#)
 - [Youtuberrak](#): [Probatxoa](#), [Super Txope](#), [Porruren grabatokia](#), [Arkkuso](#),
- Musika euskaraz
 - [Badok](#): <https://www.badok.eus/>
 - [Txatxangorria.eus](#)
- Jolasak euskaraz
 - [Jolasak.eu](#). Jolas sorta
 - [Online jolasak](#). Azkue Fundazioa
 - [Etxean goxo](#). UEMAK egindako bilketa
 - [Partxisa baino gehiago](#). Barakaldo euskaraz
 - [Plazan Bazan](#). Tokikom
 - [Ikusbera](#)

IKASKUNTZAREN AUTOERREGULAZIOA

Ondoko proposamenak ikaskuntzaren autoerregulazioari lotutakoak dira. Ikastea, ordea, eta bere autorregulazioa, langintza globaletan gertatzen da. Beraz, ondokoak dira lan horiek egiterako orduan proposatzen diren gomendioak ikaste prozesua hobetzeko:

- Zereginen planifikazioa egitea, bai epe motzekoa eta baita ertain luzekoa ere (agenda bat erabilia, plangintza baterako egutegia antolatzeako aplikazio digital ezberdinak ...).
- Eguneroko jardueretan ikaste prozesuak sakontzeko eta hobetzeko estrategia ezberdinen erabilera (azpimarraketa, laburpenak egitea, hitz gakoek zerrendak osatzea, kontzeptu mapak egitea, visual thinking lantzea ...)
- Eguneko jardunaren aurretik eta ondoren, gogoeta egitea egindakoaren inguruan eta hurrengoetan hobetzekoak idatziz apuntatzea (*Zer egin dut ondo? Zer egin nezakeen hobeto? Zer izan behar dut hurrengoan hobetzeko? ...*). Adinaren arabera, gogoeta egiteko tresnak sortzea proposatu ahal zaie ikasleei (*lanaren autoebaluaziorako errubrikak sortzea eta erabiltzea, ...*)
- Dinamika kooperatibo eta egitura kooperatiboak erabiltzea eta estrategia ezberdinen erabilera, besteak beste, Ikaskuntza Kooperatiboa proposamenean aurkituko ditugunak ([proposamenen bilketa](#))

Jarduera hauek proposatzen dira:

- Zereginen planifikazioa egiteko (espazioen prestaketa, materialen prestaketa, denboraren kudeaketa ...):
 - Agenda erabili,
 - Plangintza bat egin asteko ordutegia, lanak...
 - Egutegi-aplikazio bat erabiltzen ikasi: [Google Calendar](#), [Doodle](#), [Class timetable](#)
 - [Ardatz kronologiko](#) bat nola egin
- Lanaren garapenerako, lana egiten den heinean ordenatu eta sailkatzea. Adinaren arabera, modu fisikoan egiteko proposatu ahal da (kronologikoki, gaiaren arabera, [kausa-sareak](#) erabiliz,...); lainoko baliabide bat erabiltzea eta besteekin partekatzea ([Google Drive](#), [One drive](#)), edo eta beste kide batzuekin partekatu ondoren sarean argitaratzea ([Blogean](#), [Webgunean](#))

- Iturri ezberdinak kontsultatzeko, interneten informazioa nola bilatu ikastea ([hemen](#)). Garrantzitsua da Interneten informazioa ondo bilatzen ikastea ([hemen](#)) eta norbere informazio-iturrien sarea antolatu ([PLE](#)) (zerrendatu, grafikoki, argitaratu). Adinaren arabera, informazio-iturrien sarea antolatzeaz gain, kasu bakoitzean informazio bila nora jo automatizatzea eskatu ahal zaio ikasleari, edo eta aldeko informazio-iturrien sarearen antolamendua adosteta eta informazioa egiaztatzeke sistema erabakitzea, gune fidagarri eta ez-fidagarrien sailkapena eginez
- Ikasteko estrategiak lantzeko, zera proposatuko da: azpimarratzea, lapurpenak egitea, hitz gakoen zerrenda egitea, kontzeptu mapak egitea ... Zenbait kasutan, eskemak egitea proposatu ahal da, visual thinking erabiltzea eta kontzeptu mapak egiteko tresna birtualak erabiltzea ([Coggle](#), [Mindomo](#), [Bubbl](#), [Spicynodes](#), [Popplet](#), eta abar), gero partekatu eta argitaratzeko
- Metakognizioa lantzeko, errubrikak erabiltzea proposatu ahal da, eta horiek egiteko tresna digitalak erabiltzea ([RubiStar](#), [Rubrics](#), [TeAchnology](#), [RubricMaker](#) eta abar)
- Kolaborazioa eta kooperazioa modu telematikoan lantzeko, zenbait dinamika proposatu ahal dira: [Jomuga eta diana](#), [Pilota](#), [Elkarrizketa](#), [Maleta](#) eta abar). Bestalde, egitura kooperatibo sinpleak erabili ahal dira lagunekin lanak egiteko modu telematikoan ere bai ([Folio birakaria](#), [1-2-4](#), [Irakurketa partekatua](#)). Horrez gain, taldeko koaderno birtuala sortu ahal da taldearen jarraipena egiteko ([Taldeko plan baten adibidea](#)). Azkenik, [bideo-deia](#) erabili ahal da lan partekatuetarako tresna gisa ([Jitsi](#), [Zoom](#), [Meet](#), [Teams](#), [Skype](#), ikastetxeak GSuite edo O365 plataformaren bat badu indarrean...)

Bestalde, ez da ahaztu behar, egoera akademikoan nahiz etxeko egunerokoan aplikatzeko jarduerak ikaskuntzaren autoerregulazioan aberasgarri izango direla.

- Esaterako: etxean kolaboratzeko ardurak hartzea, irteerak antolatzea, txango batera zer eraman pentsatzea ...



bg

